



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko otsailaren 11

18. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Legea, Nafarroako 2019ko Kontu Orokorreari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoen Tasa eta Prezio Publikoei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren araudi-aldaketak egin ditzan, halatan 65 urte baino gehiagoko pertsona zaharrek modua izan dezaten alokairu babestuko eskaintzan parte hartzeko, baita jadanik etxebizitza baten jabe direnean ere, baldin eta etxebizitza hori Nasuvinsa sozietate publikoak kudeaturiko Alokairu Poltsaren programarako lagatzen bada. Osoko Bilkurak onetsia (67. or.).
- Erabakia. Horren bidez, premiatzen da prostituzio-sistema abolitu dadin. Osoko Bilkurak onetsia (68. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da indargabetu dezala apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa, zehazki gastu-arauari dagokiona. Osoko Bilkurak onetsia (68. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroa-Akitania Berria-Euskadi Euroeskualdearen bilera ezohiko eta urgenterako deia eska dezan, mugak ixtearen gaia aztertzeko. Osoko Bilkurak ezetsi du (69. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da LOMLOEn “eskari soziala” sar dezan hezkuntza-plangintza egiteko oinarritzko irizpide gisa. Osoko Bilkurak ezetsi du (69. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enplegu plan bat onets dezan maiatzaren 1a baino lehen ordezkartza handiena duten sindikatuekin eta enpresaburuekin. Osoko Bilkurak ezetsi du (70. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren amaierako euskararen eta gaztelaniaren ahozko eta idatzizko gaitasun-mailari buruzko diagnostiko-ebaluazio bat diseinatu eta inplementa dezan. Hezkuntza Batzordeak ezetsi du (70. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Nafarroako 2019ko Kontu Orokorrei buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko otsailaren 4an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako 2019ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2021eko otsailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, Nafarroako 2019ko Kontu Orokorrei buruzkoa

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorrek prestatu eta Kontuak formalizatzea Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabaidatu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets daitezten. Hori guztia, foru legeetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 123. artikulua

Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren esku uzten du Nafarroako Kontu Orokorren formulazioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakoan, Nafarroako Parlamentuari behar zaizkio igorri dagokion foru lege proiektuaren bidez, aipatutako foru legearen 130. artikuluan ezarri bezala.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu 2019ko ekitaldiko Kontu Orokorrei buruz adierazitako tramiteak, Kontuen Ganberak emana du behar den irizpena eta izapidetua dago Nafarroako 2019ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 154. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Bidezko da, beraz, foru lege hori onestea.

Artikulu bakarra. Onetsi egin dira Nafarroako 2019ko Kontu Orokorrek, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsiak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 130. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kontu Orokorren edukia Nafarroako Atarian emanen da argitara.

Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoen Tasa eta Prezio Publikoei buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko otsailaren 4an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoen Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2021eko otsailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoen Tasa eta Prezio Publikoei buruzkoa

AURKIBIDEA

Zioen azalpena

I. TITULUA. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Foru legearen xedea
2. artikulua. Araubide juridikoa
3. artikulua. Aurrekontu araubidea
4. artikulua. Agintarien eta funtzionarioen erantzukizuna

II. TITULUA. Prezio publikoak

5. artikulua. Kontzeptua
6. artikulua. Ezartzea eta aldatzea
7. artikulua. Ordaintzera behartuta daudenak
8. artikulua. Zenbatekoa
9. artikulua. Administrazioa eta kobrantza

III. TITULUA. Tasak

I. KAPITULUA. Xedapen komunak.

10. artikulua. Kontzeptua
11. artikulua. Legezketasun printzipioa
12. artikulua. Zerga-egitatea
13. artikulua. Lurralde aplikazioa
14. artikulua. Sortzapena
15. artikulua. Subjektu pasiboa
16. artikulua. Zerga onurak

17. artikulua. Tasa osatzen duten elementuak

18. artikulua. Tasen kudeaketa

19. artikulua. Autolikidazioak

20. artikulua. Itzulketak

21. artikulua. Zehapen araubidea

II. KAPITULUA. Administrazio zerbitzuak eman eta agiri eta txostenak egiteagatiko tasak

22. artikulua. Administrazio zerbitzuen tasa

23. artikulua. Azterketarako eskubideen tasa

24. artikulua. Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarkiak argitaratzeagatiko tasa

25. artikulua. Elkarteen Erregistroaren, Fundazioen Erregistroaren eta Lanbide Elkargoen Erregistroaren jarduketan tasa

26. artikulua. Garraioen arloan administrazio zerbitzuak emateagatiko tasa

27. artikulua. Txosten fakultatiboak egiteagatiko tasa

28. artikulua. Kartografiako produktuak emateagatiko tasa

29. artikulua. Nafarroako Kirol Erregistroaren jarduketan tasa

30. artikulua. Ikus-entzunezko komunikazioaren arloko administrazio zerbitzuak emateagatiko tasa

31. artikulua. Dokumentu ondareko dokumentuen erreprografia zerbitzuaren tasa

III. KAPITULUA. Ezagutzen edo egoera pertsonalen gaineko ziurtagiriak eta tituluak emateagatiko tasak

32. artikulua. Desgaitasuna egiaztatzen duen ziurtagiriaren kopia egiteagatiko tasa

33. artikulua. Ehiza lizentziak eta ehiza barrutieta-kopia matrikulak emateagatiko tasa

34. artikulua. Arrantza baimenaren tasa

35. artikulua. Arrantza kontinentaleko lizentziaren tasa

36. artikulua. Tituluak emateagatiko eta beste kontzeptu batzuegatiko tasa

37. artikulua. Liburutegiko irakurle txartelaren kopia egiteagatiko tasa

38. artikulua. Enpresei eta prestakuntza zentroi zerbizu administratiboak emateagatiko tasa

39. artikulua. Lanbide gaitasunak ebaluatu eta egiaztatze prozeduran izena emateagatiko tasa

40. artikulua. Profesionaltasun ziurtagiriak emateagatiko tasa

IV. KAPITULUA. Osasunaren arloko tasak

41. artikulua. Osasun zerbitzuen tasa

42. artikulua. Animalien eta haien produktuen osasun ikuskapen eta kontrol ofizialen tasak

V. KAPITULUA. Trafikoaren, larrialdien eta segurtasunaren arloko tasak

43. artikulua. Trafikoari dagozkion jardueren eta zerbitzuen tasa

44. artikulua. Su-itzaltze eta salbamendu zerbitzuen tasa

45. artikulua. Errepideen defentsaren eta bide ustiapeneko txostenen arloan baimena behar duten jarduerak egiteagatiko tasak

46. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Errepideen Sarean distantziak neurtzeko zerbitzuak emateagatiko tasa

VI. KAPITULUA. Jokoaren eta ikuskizunen arloko tasak

47. artikulua. Jokoaren jarduerak eragindako tasak

48. artikulua. Ikuskizun publikoen eta josteta jardueren tasa

VII. KAPITULUA. Nekazaritzaren eta ingurumenaren arloko tasak

49. artikulua. Abelbideak aldi baterako okupatzeagatiko tasa

50. artikulua. Ingurumen arloko informazio materiala emateagatiko tasa

51. artikulua. Zerbizu agronomikoen kudeaketa tekniko-fakultatiboaren tasa

52. artikulua. Nekazaritzako elikagai-industrien eta nekazaritza-ustiategien antolamenduaren tasa

53. artikulua. Osasun agiriak eman eta produktu biologikoak aplikatzeagatiko tasa

54. artikulua. Nekazaritzako Elikagaien Laborategian analisi zerbitzuak egiteagatiko tasa

55. artikulua. Lurzatiak lurzati berrantolamenduko prozesuetatik kanpo uztearen ziurtagiriak emateagatiko tasa

56. artikulua. Jatorri-deituren, deitura espezifikoaren edo adierazpen geografiko babestuen kontseilu arauemaileen zerbitzuen tasak

57. artikulua. Esportaziorako ziurtagiri fitosanitarioak emateagatiko tasa

58. artikulua. Europar Batasuneko etiketa ekologikoa emateagatiko tasa

59. artikulua. Edukieren lekualdaketak emateagatiko tasa

60. artikulua. Ingurumen baimen integratuaren araubideko tasak

61. artikulua. Simaurren hondakin-kudeaketarako araubidearen tasak

VIII. KAPITULUA. Industriaren arloko tasak

62. artikulua. Industriaren eta meatzeen arloko zerbitzuen tasak

IX. KAPITULUA. Ekonomiaren eta ogasunaren arloko tasak

63. artikulua. Nafarroako Lur-ondasunen Erregistro Fiskaleko dokumentazioa edo informazioa eman edo datuak egiaztatzeagatiko tasa

64. artikulua. Inprimakiak, programak eta aplikazio informatikoak saltzeagatiko tasa

65. artikulua. Aseguruetako bitartekarien eta berraseguruetako artekarien Erregistroan inskribatu eta ziurtagiriak egiteagatiko tasa

66. artikulua. Tributu aitortpenen edo haien edukia kopia edo erreproduktzioaren tasa

67. artikulua. Tributu arloko berariazko ziurtagiriak emateagatiko tasa

X. KAPITULUA. Etxebizitzaren eta eraikuntzaren arloko tasa

68. artikulua. Proiektuen erredakzioaren eta tasazioaren eta obren balorazioen tasa

69. artikulua. Obren zuzendaritzaren eta tasazioaren tasa

70. artikulua. Txostenen, ziurtagirien eta gainerako jarduketa fakultatiboaren tasa

71. artikulua. Etxebizitzaren planoen eta lurralde antolamenduko nahiz hirigintzako agirien kopiak egiteagatiko tasa

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea

Azken xedapenetako lehena. Indarra hartzea.

Azken xedapenetako bigarrena. Erregelamendu bidezko garapena.

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko Tasa eta Prezio Publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legeak Foru Komunitateko Administrazio-ko eta haren erakunde autonomoetako tasen eta prezio publiko berekien araubide juridikoa arautzen du. Foru lege horren egitura, departamentuen arabera, desegokia da eta nahasmendua eragiten du Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu egitura aldatzen den aldiro; hortaz, irizten zaio komeni dela departamentuen arabera egitura hori aldatzea eta, haren ordez, Foru Komunitateko Administrazio-ko tasak arloen arabera antolatzea.

Foru lege honetan biltzen dira Nafarroako Foru Komunitateko administrazio-ko eta haren erakunde autonomoetako tasen eta prezio publikoen gaineko arauak. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko Tasa eta Prezio Publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legearekin alderatuta, foru lege honen onespenez dakarren aldaketa nagusia eta helburua da arloen arabera antolaketaren egitea, departamentuen arabera aurrekoaren ordez.

Foru lege honek hirurogeita hamaika artikulua ditu, hiru titulutan banatuta, xedapen indargabeztaille bat eta bi azken xedapen.

Lurralde Kohesiorako Departamentuak proposatuta, kartografiako produktuak emateagatik tasak eguneratzen dira: Lege berriaren 28. artikulua (7/2001 Foru Legearen 133 bis artikulua). Horren arrazoia da inprentan inprimatzetik plotterean inprimatzera aldatu dela, erabiltzaileek eskatuta, eta horrela kudeaketa kartografikoaren produktibitatea handiagoa eta ekologikoagoa da. Zenbatekoak ez dira aldatzen, baina desagertzen dira inprentako edizioen tasa gehienak.

Bestalde, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak proposatuta, aldatzen da azterketa egiteko eskubideen tasa: foru lege berriaren 23. artikulua (7/2001 Foru Legearen 27. artikulutik 31. artikulura bitartekoak), 5. tarifa desagertzen da eta aldatzen dira enplegu eskatzaileek tasarik ez ordaintzeko bete beharreko baldintzak. Aldaketa horietarako arrazoiak dira, batetik, E maila edo taldeko lanpostuak D mailan edo taldean sartu izana, horrek dakarrelako Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan E maila edo taldeko lanpostuak desagertzea eta, haiekin batera, horien azterketarako tasa ere, 5. tarifaren arabera ordaintzen zena. Bestetik, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak txosten bat egin du, tasei buruzko foru legea aldatzea proposatuz, enplegu eskatzaileek tasa ordaintzetik salbuesteari dago-

kionez, bi arrazoiengatik: lehenik, artikulua horren testuak ez dituelako langabeak bakarrik salbuesten tasa ordaintzetik, enplegu eskatzaile gisa izena emana duten guztiak baizik, alegia, enplegu hobekuntzan inskribatuta eta lanean ari direnak ere bai, eta horrek ez du zentzu handirik, pertsona horiek errentak jasotzen ari direlako; bigarrenik, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak ematen duen ziurtagiriak, enplegu eskatzaile gisa inskribatzeaz gain, lan eskaintza bati edo sustapen, prestakuntza edo egokitze profesionalerako ekintzetan parte hartzeari uko egin izana egiaztatzen duenak, arazo asko eragiten dituelako, eta, horrez gain, LGStik gorako errentak izatea edo ez egiaztatzen duen agiria ez du erakundeak ematen, datu hori ez duelako.

Hezkuntza Departamentuak proposatuta, "Tituluak emateagatik eta beste kontzeptu bazuengatik tasa" izenekoari dagokionez, foru lege berriaren 36. artikuluan (7/2001 Foru Legearen 96. artikulutik 99 bis artikulura bitartekoak), "teknikariaren titulua" izeneko 4. tarifan bateratzen dira honakoak, izaera berekoak baitira eta sinplifikatze aldera: 4., 5. eta 19. tarifak, hau da, teknikariaren titulua, arte plastikoetako eta diseinuko teknikariaren titulua, eta kirol arloko teknikariaren titulua. Berdin gertatzen da 6., 7. eta 20. tarifetan, hau da, goi mailako teknikariaren titulua, arte plastikoetako eta diseinuko goi mailako teknikariaren titulua eta kirol arloko goi mailako teknikariaren titulua, "Goi mailako teknikariaren titulua" izeneko 5. tarifan bateratzen baitira.

Halaber, tarifa berri bat gehitzen da, "Goi mailako arte ikasketetan sartzeko heldutasun proba" izeneko. Proba hori bat dator lanbide heziketako zikloetan arteen modalitatean sartzeko probarekin, eta hura egin eta zuzentzeko lanak epaimahai berberak betetzen dituztenez, zenbateko bera ezartzen da horretarako ere: 18 euro.

Azkenik, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak proposatuta, bi tasa berri sartzen dira III. tituluko VII. kapituluko tasetan, "ingurumen baimen integraturako araubidearen tasa" eta "simaurren hondakin-kudeaketarako araubidearen tasa", hurrenez hurren 60. eta 61. artikulua. Zerga-egitateak osatuko dituzte ingurumen baimen integraturako araubideari eta simaurren hondakin-kudeaketarako araubideari dagozkien administrazio prozeduren tramitazioak, hurrenez hurren, instalazioen titularrek edo sustatzaileek eskatuta nahiz ingurumen arloko eskumena duen departamentuaren ekimenez ofizioz hasten direnak.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Foru legearen xedea

1. Foru lege honen xedea da Foru Komunitateko Administrazioeko eta haren erakunde autonomo-eta tasen eta prezio publiko berekien araubide juridikoa erregulatzeko.

2. Hauek dira tasa berekiak:

a) Foru lege honen III. tituluko II. kapitulutik X.era bitartekoetan jasotakoak.

b) Etorkizunean Foru Komunitateak ezartzen dituenak.

c) Hitzarmen Ekonomikoan xedatutakoaz baliatuz, ordainaraztean aplikatu beharreko araudia araubide erkidean aplikatzen den berbera denean.

d) Estatuak edo toki korporazioek Foru Komunitateari transferitzen ahal dizkietenak, transferitutako zerbitzu edo eskumenei atxikita daudelako.

3. Prezio publiko berekiak dira foru lege honetan xedatutakoaren menpe ezartzen direnak eta aurreko apartatuko d) letran aurreikusitako kasuak eragin ditzakeenak.

4. Foru lege honetako aginduak ez zaizkie honakoei aplikatuko:

a) Zuzenbide pribatuko arauen arabera jarduten duten entitate eta erakundeek betetzen dituzten jardueren eta ematen dituzten zerbitzuen trukean emandako kontraprestazioa.

b) Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzuen Ganbera Ofizialeko baliabideak, beren legedi berariazkoa izanzen baitute.

c) Kontratu publikoen legediaren arabera erabiltzaileek obra erabiltzeagatik edo zerbitzua emateagatik obra eta zerbitzuen emakidadunei ordaintzen dizkieten tarifei, zergaz besteko ondare prestazio publikoak baitira.

2. artikulua. Araubide juridikoa

1. Foru Komunitateak tasa eta prezio publiko berekiak eskatuko ditu arau hauei loturik: Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren berrogeita bosgarren artikuluan aipatzen den Hitzarmen Ekonomikoa, foru lege honetan xedatutakoa eta hau garatzeko ematen diren erregelamenduzko arauak eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak.

Tasei Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra aplikatuko zaie.

2. Foru lege honen 1.2 c) eta d) letretan jasotzen diren tasak, eta 1.2.d) letran aurreikusitako kasuak eragindako prezio publikoak Estatuko araudiari lotuta daude foru lege honen kontrakoa ez den guztian, harik eta Foru Komunitateak horren gaineko arauak eman arte.

3. artikulua. Aurrekontu araubidea

1. Foru lege honetan arautzen diren baliabideak Foru Komunitateko diruzaintzan sartuko dira edo tributuen arloko eskumena duen departamentuko titularrak baimendutako banku-kontuetan.

2. Baliabide horiek Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontu-sarrerak dira eta beren betebeharrak guztiei erantzuteko erabili behar dira, salbu eta foru lege baten bidez erabilera zehatz bat ezartzen bazaie.

4. artikulua. Agintarien eta funtzionarioen erantzukizunak

1. Diziplina falta oso astuna izanzen da agintari edo funtzionarioek tasa edo prezio publiko bat beren borondatez eta errudun izanik bidegabeki eskatzea, bai eta ezarritakoa baino diru kopuru handiagoa eskatzea ere, horrek galarazi gabe horrela jokatzek ekar ditzakeen bestelako erantzukizunak.

2. Era berean, foru lege hau eta arlo honen gaineko beste arauak hausten dituzten ebazpenak hartu edo egintzak gauzatu dituztenean, kalteordaina eman beharko diote Foru Komunitateari eragindako kalteak direla eta.

II. TITULUA

Prezio publikoak

5. artikulua. Kontzeptua

Prezio publikoak diruzko kontraprestazioak izanzen dira, ordaintzen direnak zuzenbide publikoko araubidean zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik, baldin eta, sektore pribatuak ere zerbitzu edo jarduera horiek ematen baditu baina administratuek beren borondatez eskatzen badituzte.

6. artikulua. Ezartzea eta aldatzea

1. Nafarroako Gobernuak ezarriko du zein diren prezio publikoen xede izan daitezkeen zerbitzu-emateak edo jarduerak, tributuen arloko eskumena duen departamentuak eta zerbitzu edo jarduera horiek betetzen dituen departamentu edo erakundeak batera egindako proposamena kontuan hartuta.

2. Honakoek ezarri edo aldatuko dute prezio publikoen zenbatekoa:

a) Prezio publikoak jaso behar dituen organoa bere menpe duen departamentuak, organoak proposatuta.

b) Erakunde autonomoek zuzenean, horiek bere menpe dituen departamentuak baimena eman ondoren.

3. Prezio publikoak ezarri edo aldatzeko proposamen bakoitzarekin batera, memoria ekonomiko-finantzario bat aurkeztu beharko da, bertan justifikatzeko proposatzen diren zenbatekoak eta dagozkien kostuak noraino finantzatzen ahal diren.

7. artikulua. Ordaintzera behartuta daudenak

Prezio publikoak ordaindu beharko dituzte ordaindu beharreko zerbitzu edo jardueren onura jasotzen dutenek, dela onura pertsonala dela beren ondasunen gainekoa.

8. artikulua. Zenbatekoa

1. Ezartzen diren prezio publikoak jarduerak egiteak edo zerbitzuak emateak sortzen dituen kostu ekonomikoak berdintzeko adinakoak izanen dira, gutxienez ere.

2. Arrazoi sozialak, ongintzakoak, kulturalak edo interes publikokoak direla-eta komeni denean, aurreko apartatuan aurreikusitakoak baino merkeagoak diren prezio publikoak ezartzen ahalko dira, prezioaren zati diruz lagundua ordaintzeko behar diren aurrekontu aurreikuspenak egin ondoren betiere.

9. artikulua. Administrazioa eta kobrantza

1. Prezio publikoak jaso behar dituzten departamentu eta erakundeak arduratuko dira horien administrazioaz eta kobrantzaz.

2. Prezio publikoa ordaindu beharra zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten denean sortzen da, baina eskatzen ahalko da zenbatekoa, osorik edo zati bat, aldeztu aurretik ordaintzeko edo gordailuan uzteko.

3. Prezio publikoak eskudirutan edo efektu tinbredunak erabiliz ordainduko dira.

4. Prezio publikoa ordaintzera behartuta dagoenari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik zerbitzua ematen edo jarduera egiten ez bada, bidezkoa izanen da kasuan kasuko zenbatekoa itzultzea edo, ikuskizunen kasuan, sarrerak trukatzeta, posible bada.

5. Prezio publikoak direla-eta zorrik baldin bada, horiek premiamenduzko administrazio pro-

zeduraren bidez eskatzen ahalko dira, indarreko araudiari jarraikiz.

6. Foru lege honetan berariaz aurreikusita ez dagoen guztian, prezio publikoen administrazioa eta kobrantza Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legean eta arlo horretan aplikatu beharreko gainerako arauetan xedatuarekin bat eginen dira.

Halere, preskripzioaren eta sarrera bidegabeen itzulketaren arloan Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean eta hura garatzeko arauetan xedatutakoa aplikatuko da.

III. TITULUA

Tasak

I. KAPITULUA **Xedapen komunak**

10. artikulua. Kontzeptua

Tasak tributu batzuk dira, zeinen zerga-egitate baita, batetik, jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia, edo, bestetik, zuzenbide publikoko araubidean zerbitzuak ematea edo jarduerak betetzea, subjektu pasiboari bereziki dagozkionak, eragiten diotenak edo onura ekartzen diotenak, baldin eta inguruabar hauetako bat badago tartean:

a) Zerbitzuak edo jarduerak ez izatea administrazioek beren borondatez eskatuak. Hartarako, honako eskaerak ez dira hartuko administrazioek beren borondatez egindakotzat:

Legezko edo erregelamenduzko xedapenek inposatua denean.

Eskatutako ondasunak, zerbitzuak edo jarduerak ezinbestekoak direnean eskatzailearen bizitza pribatu edo sozialerako.

b) Sektore pribatuak emanak edo eginak ez izatea, indarra duen araudiaren arabera sektore publikoaren aldeko erreserba ezarriarik egon ala ez.

11. artikulua. Legezkoetasun printzipioa

1. Tasak foru lege bidez ezarri, aldatu edo kendu beharko dira, bai eta haietako bakoitzaren funtsezko elementuak arautu ere, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean 11. artikuluan ezarritakoarekin bat.

2. Foru lege bidez baimentzen denean, arau horrek berak ezartzen dituen zenbatespen irizpideen edo elementuen menpe betiere, zehazten ahalko dira erregelamenduzko arau bidez tasa bakoitzerako eska daitezkeen zenbatekoak.

12. artikulua. Zerga-egitatea

Tasak ezartzen ahalko dira jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik eta aprobetxamendu bereziagatik edo zuzenbide publikoko araubideak zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatik, horien xedea hau baldin bada:

- a) Lizentziak, bisak, matrikulak edo baimen administratiboak, mota guztietakoak, tramitatu edo ematea.
- b) Alderdi batek eskatuta, ziurtagiriak edo agiriak ematea.
- c) Liburuak legeztatzea eta zigilatzea.
- d) Jarduketa tekniko eta fakultatibo hauek: zaintza, zuzendaritza, ikuskaritza, ikerketa, azterketak, txostenak, aholkularitza, egiaztapena, aitor-tzea edo prospekzioa.
- e) Proiektuak, egiaztapenak, kontrastatzeak, saiakuntzak eta homologazioak aztertzea.
- f) Balorazioak eta tasazioak.
- g) Inskripzioak eta idatz-oharrak egitea erregist-ro ofizial eta publikoetan.
- h) Zerbitzu akademikoak eta osagarriak.
- i) Portu eta aireportuetako zerbitzuak.
- j) Osasun zerbitzuak.
- k) Zerbitzuak edo jarduerak, oro har, pertsona zehatzei dagozkienak, eragiten dietenak edo onura ekartzen dietenak, edo, zuzenean edo zeharka, pertsona horien kausaz egin direnak.

13. artikulua. Lurralde aplikazioa

Foru lege hau aplikatuko zaie Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek eman edo egindako zerbitzu edo jarduera publikoen tasei, edozein dela ere eman edo egiten diren tokia.

14. artikulua. Sortzapena

1. Tasak honelakoetan sortuko dira, izaera orokorrarekin eta zerga-egitatearen izaeraren arabera:

- a) Jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia baimentzen denean.
- b) Subjektu pasiboak eskaerarik egin behar ez duenean, zerbitzua ematean edo jarduera administratiboak egitean, horrek ukatu gabe alde zuzenetik gordailua egiteko aukera.
- c) Jarduketari edo espedienteari hasiera ematen dion eskaera aurkezten denean; tasaren sarrera egin arte ez da egin edo tramitatuko.

2. Tasak aldian-aldian sortzen badira, kasuan kasuko erregistro, errolda edo matrikulan egindako altari dagokion likidazioa jakinarazi ondoren, hurrengo likidazioak multzoka jakinarazten ahalko dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarkiak argitaratuz.

15. artikulua. Subjektu pasiboa

1. Zergadun gisa, tasen subjektu pasiboak pertsona fisikoak edo juridikoak izanen dira, jabari publikoaren erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren onura jasotzen dutenak edo zerga-egitatea osatzen duten zerbitzu edo jarduera publikoen eragin edo onura pertsonala edo beren ondasunen gainekoa jasotzen dutenak.

2. Egoki denean, subjektu pasibotzat hartuko dira, halaber, jaraunspen banatugabeak, ondasun-erkidegoak eta gainerako entitateak, nortasun juridikorik gabekoak, zergapetu daitekeen unitate ekonomiko bat edo bereizitako ondare bat osatzen badute.

3. Tasa bakoitzaren arau berariazkoak zergadunaren ordezkioak ezartzen ahalko ditu, zerga-egitatearen ezaugarriak direla-eta komeni denean.

Bereziki, izaera hori izanen dute, etxebizitza edo lokaletako bizilagunei onura ekartzen edo eragiten dieten zerbitzu edo jarduerak direla-eta ezarritako tasen kasuan, etxebizitza edo lokal horien jabeek, zeinek zilegi izanen baitute tasak, hala egokitzen bada, kasuko onura hartzaileei jasana-raztea.

4. Zerga-egitatea gauzatzean bi onuradun edo gehiago baldin badaude, denek izanen dute bete-behar solidarioa, non ez den esanbidez kontrakoa ezartzen tasa bakoitzaren arauan.

16. artikulua. Zerga onurak

Tasak ordaintzetik salbuetsirik daude Nafarroako Foru Komunitatea, Nafarroako toki entitateak, Estatua, lurraldeko gainerako erakunde publikoak eta horien menpeko erakunde autonomoak. Zilegi da aplikaziorako baldintzak jartzea kasu zehatz bakoitzerako.

Hala ere, tasa bakoitzaren arauketa berariazkoak jasotzen ahal ditu beste zerga onura batzuk, zerga-egitatearen ezaugarriak zein diren edo subjektu pasiboak nor diren.

17. artikulua. Tasa osatzen duten elementuak

1. Tasen kuoten zenbatekoak ezarriko dira halako moduan non haien etekina ez baita izanen orotara duten kostua baino handiagoa.

2. Jabari publikoaren erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren tasen zenbate-

koa izanen da, gehieneko kostu osoan, dagokion merkatuko balioa edo haren erabilera.

Meatzeen eta hidrokarburoen baimen eta emakiden kasuan, kontuan hartuko da eskubidearen xede den azalera.

3. Zerbitzu bat eman edo jarduera bat egiteagatik kobratzen diren tasen zenbatekoa ez da izanen, osotara, kasuko zerbitzu edo jardueraren kostu benetakoa edo ustezkoa baino handiagoa, edo, bestela, hartutako prestazioaren balioa baino handiagoa.

Zenbateko hori ezartzeko, aintzat hartuko dira zuzeneko eta zeharkako kostuak, barnean hartuta kostu finantzarioak, ibilgetua amortizatzeak eta, halakorik bada, tasa sortzen duen zerbitzu edo jardueraren mantentzea eta garapen arrazoizkoa bermatzeko behar diren kostuak, zein ere den ordaintzeko erabiltzen den aurrekontua. Edozein kasutan, kontuan hartuko dira subjektu pasiboak egiten dituen jarduketek, jarduerak edo zerbitzuek eragindako kostu sozialak edo onura sozialak, tasaren zenbatekoa haren onura sozialaren kontzeptura hurbiltzeko.

4. Zerga kuota zenbateko finko bat izan daiteke, horretarako ezarria, zerga-oinarri gisa erabiltzen diren zenbatespen elementuei aplikatzen zaien karga-tasa baten arabera zehaztu, edo bi prozedurak erabiliz batera ezarri.

5. Erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak berekin dakartenean jabari publikoaren suntsiketa edo narriadura, tasaren beraren zenbatekoa arautzean aurreikusitako ez zen modu aipagarrian, onuraduna beharturik dago aipatu horiek berreraiki edo konpontzeko gastuen kostu osoa ordaintzera, horrek ukatu gabe behar den tasa ordaindu beharra. Kalteak konponezinak badira, suntsitutako ondasunek zenbat balio duten edo kaltetutakoen balio-galera norainokoa den, horrenbestekoa izanen da kalte-ordaina.

6. Tasa berri bat ezarri edo lehendik dagoen baten zenbatekoak berariaz aldatzeko proposamen guztietan memoria ekonomiko-finantzario bat egin beharko da kasuko baliabide edo jardueraren kostuaz edo balioaz, eta proposatutako tasaren zenbatekoaren justifikazioaz.

7. Tasak ezartzean kontuan hartuko da tasa horiek ordaindu behar dituztenen gaitasun ekonomikoa, tributuaren ezaugarriek horretarako aukera ematen badute.

18. artikulua. Tasen kudeaketa

1. Borondatezko epean tasak kudeatu, likidatu eta biltzea dagokio jabari publikoaren erabilera,

zerbitzu-emate edo jarduera, zergari lotutakoak, baimendu edo egin behar dituen departamentuari edo erakunde autonomoari, horrek ukatu gabe tributu arloko eskumena duen departamentuak bide exekutiboko diru-bilketaren eta ikuskapenaren gainean dituen eginkizunak betetzea bai tasei dagokienez bai horien kudeaketa esleitura duten organoei dagokienez.

2. Nafarroako Gobernuari dagokio tributu arloko eskumena duen departamentuaren eginkizunen eta gainerako departamentu eta erakunde kudeatzaileen eginkizunen arteko koordinazioa arautzea.

3. Tasen kudeaketan aplikatuko dira, kasu guztietan, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren eta hura garatzeko arauen printzipioak eta prozedurak, eta, bereziki, honakoak arautzen dituzten xedapenak: zerga likidazioak, diru-bilketa, zergen gaineko ikuskapena eta egintzak administrazio bidean berrikustea.

4. Tasa aldian-aldian sortzen bada, zerbitzuan onartzeko ebazpen berririk hartzea beharrezkoa ez duten zerbitzu jarraituen prestazioa egiten denean, tasa jasotzen duen organoak edo erakundeak eteten ahalko du prestazioa ordainketa egiten ez bada, haren arauak horretarako baimena ematen ez badio, eta horrek ukatu gabe zenbatekoa premiamendu bidez eskatzea.

19. artikulua. Autolikidazioak

Tasen subjektu pasiboak beharturik egonen dira zerga autolikidazioko eragiketarako egitera eta zerga zorraren diru-sarrera egitera foru lege honetan zehaztutako kasuetan eta erregelamendu bidez zehazten den kasuetan.

20. artikulua. Itzulketak

Eskatutako tasak itzultzea bidezkoa izanen da zerga-egitatea betetzen ez denean subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik.

21. artikulua. Zehapen araubidea

Zehapen espedienteen kalifikazioa eta zehapenen ezarpena tributu arloko xedapen orokorrek arautuko dituzte.

II. KAPITULUA

Administrazio zerbitzuak eman eta agiri eta txostenak egiteagatik tasak

22. artikulua. Administrazio zerbitzuen tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek administrazio zerbitzu hauek ematea:

- a) Ziurtagiriak egitea.
- b) Agiriak konpultsatzea.
- c) Erregistro ofizialetan inskribatzea.
- d) Ahalordeak eta legitimazioa egiaztatzeko agiriak askiestea.

Administrazio zerbitzu horiek ez dute tasa hori ordaindu beharko foru lege honetan araututako beste tasa batzuekin berariaz zergapeturik daudean.

2. Subjektu pasiboak.

	EUROAK
Ziurtagiriak ematea (ziurtagiri bakoitzeko)	5,20
Agiriak konpultsatzea (kopia bakoitzeko)	2,60
Erregistro ofizialetan inskripzioa egitea (inskripzio bakoitzeko)	2,60
Ahalordeak eta legitimazioa egiaztatzeko agiriak askiestea (agiri bakoitzeko)	6,24
Administrazio espediente bat kopiatu edo erreproduzitzea barne hartzen duten ziurtagiriak ematea	2,08 eta 0,06 gehiago erreproduzitutako orrialde bakoitzeko
Administrazio espediente baten kopia edo erreproduktzio bakoitzeko	0,06 erreproduzitutako orrialde bakoitzeko

5. Salbuespenak:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo haren erakunde autonomoek pagatutako ordainsarien ziurtagiriak egitea, frogagiri gisa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarekin loturik.

b) Administrazio langileek beren izaera horrekin lotuta eskatzen dituzten ziurtagiriak eta agirien konpultsak.

c) Ziurtagiriak egitea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako beste departamentu batek edo haren erakunde autonomo batek berariaz eskaturik.

d) Internet bidez jaso daitezkeen ziurtagiriak egitea.

e) Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek administrazio horretan sartzeko hautapen-probetako izangaiei eskatzen dizkieten agirien konpultsak.

f) Hezkuntza Departamentuaren menpeko irakaskuntza arautuko ikastetxe publikoek ziurtagiriak ematea eta agiriak konpultsatzea kategoría bereziko familia ugarietako kideei eta kategoría bereziko guraso bakarrek familietako kideei edo gurasobakartasun egoeran dauden familietakoei.

Tasaren subjektu pasiboak dira aurreko apartatuan aipatzen diren zerbitzuak eskatzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak.

3. Sortzapena

Tasa sortuko da zerga-egitatea osatzen duen zerbitzuaren eskaera aurkezten den unean berean.

4. Tarifa.

Tasa eskatuko da tarifa honen arabera:

6. Hobariak

4. apartatuaren f) letran aipatzen diren tasek ehuneko 50eko hobaria izanen dute kategoría orokorreko familia ugarietako kideei eta kategoría orokorreko guraso bakarrek familietako kideei edo gurasobakartasun egoeran dauden familietakoei emandako zerbitzuengatik.

23. artikulua. Azterketarako eskubideen tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da Administrazioak behar diren zerbitzuak ematea, Administrazioan sartzeko hautaprobak egiteko behar direnak.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira tasaren zerga-egitatea osatzen duen zerbitzu-ematea eskatzen duten pertsona fisikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da hurrengo apartatuan aipatzen diren hautaprobetan inskribatzeko eskaera aurkezten denean.

4. Tarifak.

Tasa eskatuko da tarifa hauen arabera:

		Euroak
1. TARIFA	Karrerako funtzionario gisa A mailan sartzeko	41,60
2. TARIFA	Karrerako funtzionario gisa B mailan sartzeko	41,60
3. TARIFA	Karrerako funtzionario gisa C mailan sartzeko	26
4. TARIFA	Karrerako funtzionario gisa D mailan sartzeko	15,60

5. Salbuespenak.

a) % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak.

b) Hautapen deialdia argitaratu baino hilabete bat lehenagotik gutxienez langabe gisa inskribaturik dauden pertsonak.”

24. artikulua. Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarkiak argitaratzeagatiko tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarkiak argitaratzea.

2. Subjektu pasiboak.

KONTZEPTUA	Euroak
1.-Tarifa orokorra	60,00
2.-Aurrez ezarritako tarifa	
2.1. Jarduera sailkatuaren udal lizentziari buruzko iragarkiak (ordainketa bakarra, lizentzia ematean)	50,00
2.2. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legea betetzeko argitaratu beharreko iragarkiak (ordainketa bakarra araudiaren behin betiko onespenerekin eta, bidezkoa bada, argitalpenarekin)	80,00

Osagarriak:

TAULAK	Euroak
Orrialde osoa	60,00
Orrialde erdia	30,00
IRUDIAK	Euroak
Edozein neurri	30,00
ERANSKINAK PDFn	60,00

25. artikulua. Elkarteen Erregistroaren, Fundazioen Erregistroaren eta Lanbide Elkargoen Erregistroaren jarduketan tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da liburuak gaitzea eta inskripzioa eta egiaztapena egitea, indarreko xedapenekin bat Elkarteen Erregistroan, Fundazioen Erregistroan eta Lanbide Elkargoen Erregistroan gaitu eta inskribatu behar diren egintza, egitate eta agiriarenak.

Tasaren subjektu pasiboak dira iragarkiak argitaratzea eskatzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak edo, halakorik eskatu ez dutenean, argitaratzearekin onura berezia hartzen dutenak.

3. Sortzapena.

Iragarkiak argitaratzeagatiko tasa sortuko da argitaratzeko eskaera aurkezten den unean. Argitaratzea gauzatu eta dagokion zenbatekoa zehaztu ondoren egingen da ordainketa. Dena dela, tarifa aurretik finkatuta duten iragarkietan, eskaera aurkeztearekin batean ordaintzea eska daiteke.

4. Tarifak.

Tasa eskatuko da tarifa hauen arabera:

2. Subjektu pasiboa.

Tasaren subjektu pasiboak dira aurreko apartatuan aipatzen diren zerbitzuak ematea eskatzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da zerga-egitatea osatzen duen zerbitzua emateko eskaera aurkezten den unean.

4. Tarifak.

		Euroak
1. TARIFA	Elkarteen eta federazioen erregistroa	
	1. Eraketa inskribatzea	12,00
	2. Estatutuen aldaketa edo entitatearen indarreko araudirako egokitzapena inskribatzea	6,00
	3. Bestelako inskripzioak	4,00
	4. Ziurtagiriak egitea	8,00
2. TARIFA	Fundazioen erregistroa	
	1. Eraketa inskribatzea	53,00
	2. Estatutuen aldaketa edo fundazioaren amaiera inskribatzea	
	3. Bestelako inskripzioak	38,00
	4. Ziurtagiriak ematea	8,00
3. TARIFA	Lanbide elkargoen erregistroa	
	1. Profesionalen elkargoen eraketaren inskripzioa	53,00
	2. Bat-egitea, xurgapena, izen-aldaketa edo desegitea inskribatzea	38,00
	3. Estatutuen aldaketa inskribatzea	38,00
	4. Bestelako inskripzioa	23,00
	5. Ziurtagiriak egitea	8,00

26. artikulua. Garraioen arloan administrazio zerbitzuak emateagatiko tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da 4. apartatuan aipatzen diren garraioaren arloko administrazio zerbitzuak ematea.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira pertsona fisikoak edo juridikoak, zerga-egitatea osatzen duen zerbitzua emateko eskaera egiten dutenak edo haren eraginpekoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da zerga-egitatea osatzen duen zerbitzua emateko eskaera aurkezten den unean

4. Tarifak.

		Euroak
1. TARIFA	Salgaien eta bidaiarien garraio publiko edo pribatu osagarriko baimenak ematea, birgaitzea, bisatzea edo aldatzea, eta, hala behar bada, atxikitako ibilgailuentzat ere.	27
2. TARIFA	Erabilera bereziko bidaiarien garraio publiko erregularerako baimenak ematea edo berritzea.	14
3. TARIFA	Garraioaren jarduera osagarriak egiteko baimenak ematea, berritzea edo aldatzea (garraioko operadorea).	55
4. TARIFA	Txartelak ematea eta berritzea	
	1. Takografo digitalaren txartela ematea eta berritzea.	43
	2. Gidariaren gaitasun txartela ematea eta berritzea.	26
	3. Gidariaren gaitasun txarteleko datu pertsonalak aldatzea.	5
5. TARIFA	Liburuak ziurtatzea eta eginbidetzea	
	1. Liburu edo agiri nahitaezkoak legeztatu, eginbidetu edo zigilatzea	11
	2. Enpresei buruzko ziurtagiriak eta garraio baimenak ematea.	9
	3. Beste herrialde batzuetako gidari ziurtagiria ematea.	28
6. TARIFA	Azterketa egiteko eta tituluak emateko tasak	
	1. Honako azterketa hauek egiteko eskubideengatik: garraiolariaren lanbide gaitasunaren titulua lortzekoa, segurtasun aholkulariaren titulua lortzekoa edo berritzekoa, edo gidariaren lanbide gaitasunaren ziurtagiria lortzekoa.	22
	2. Garraiolariaren lanbide-gaitasunaren titulua ematea eta segurtasun aholkulariaren titulua ematea edo berritzea.	27
	3. Lanbide-gaitasunaren edo segurtasun aholkulariaren tituluko datu pertsonalak aldatzea.	5
7. TARIFA	Gidarien hasierako kualifikazioaren eta etengabeko prestakuntzaren tasak	
	1. Zentroak baimentzea	340
	2. Zentroen titulartasuna aldatzea	178
	3. Ikastaroak homologatzea	125
8. TARIFA	Idatzizko txostenak prestatzea	
	1. Garraio arloko enpresen eta jardueren edo garraio zerbitzuen beste erregistro batzuetan ageri diren pertsonen, baimenen, ibilgailuen edo enpresa berariazkoen buruzko datuen gainean.	26
	2. Aurreko kontzeptuaren jardueretarako, datu orokorren gainean.	211

27. artikulua. Txosten fakultatiboak egiteagatiko tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da txosten fakultatiboak egitea pertsona fisiko edo juridiko interesdunek eskatuta egiten direnean.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira 1. apartatuan aipatzen diren txostenak egitea eskatzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da zerga-egitatea osatzen duen zerbitzua emateko eskaera aurkezten den unean.

4. Tarifak.

Tasa eskatuko da tarifa hauen arabera:

		Euroak
1. TARIFA	Bertatik bertara daturik hartzea beharrezkoa ez duten txostenak, bakoitza	46,80
2. TARIFA	Bertatik bertara datuak hartzea beharrezkoa duten txostenak, bakoitza	156,00

28. artikulua. Kartografiako produktuak emateagatiko tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da kartografiako produktuak egiteko zerbitzua ematea.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira zerga-egitatea osatzen duten zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da zerga-egitatea osatzen duen zerbitzua emateko eskaera aurkezten den unean.

4. Tarifa.

Tasa eskatuko da tarifa hauen arabera:

a) Inprimategian editatutako kartografia:

IZENA	Euroak
1. Nafarroako mapa topografikoak	
-1:200.000 (hormakoa/tolestua)	3,90
-1:200.000 (erliebeduna)	32,50
-1:400.000 (hormakoa/tolestua)	2,60
-1:850.000	1,30
2. Nafarroako mapa geologikoak	
-1:200.000 (hormakoa/tolestua)	10,75
-1:200.000 eta Memoria	16,20
3. Laboreen eta aprobetxamenduen mapak	
-1:25.000	6,45
4. Iruñeko mapa geoteknikoak	
-1:25.000 eta Memoria	16,20
5. Nafarroako laboreen eta aprobetxamenduen mapak	
-1:200.000 (hormakoa/tolestua)	9,70

b) Kartografia ploteatua:

IZENA	Euroak
1. Nafarroako mapa topografikoak	
-1:5.000 (papera/zuri-beltzean)	9,70
-1:5.000 (papera/koloretan)	13,00
-1:10.000 (papera/zuri-beltzean)	9,70
-1:10.000 (papera/koloretan)	13,00
-Nafarroako Mapa Topografikoa 1:100.000 hormakoa (argazki papera/koloretan)	52,85
-Nafarroako Mapa Topografikoa 1:100.000 hormakoa (argazki papera/koloretan)	18,00
-Nafarroako Mapa Topografikoa 1:100.000 hormakoa (argazki papera/koloretan)	32,50
-Nafarroako Mapa Topografikoa 1:100.000 hormakoa (argazki papera/koloretan), orri bakoitza	13,00
2. Nafarroako ortoargazkimapak	
-1:5.000 (argazki papera)	18,00
-1:5.000 (paper arrunta)	13,00
-1:10.000 (argazki papera)	18,00
-1:10.000 (paper arrunta)	13,00
-Iruñerrikoa 1:12.500 eskalan (argazki papera)	18,00
-Iruñerrikoa 1:12.500 eskalan (paper arrunta)	13,00
3. Nafarroako mapa geologikoa	
-1:25.000 (paper arrunta)	13,00
4. Nafarroako mapa geomorfologikoa	
-1:25.000 (paper arrunta)	13,00
5. Lurzoruaren erabileren mapa	
-1:200.000 (paper arrunta)	13,00
6. Nafarroako Natura 2000 Sarearen mapa	
-1:200.000 (paper arrunta)	13,00
7. Nafarroako abelbideen mapa	
-1:200.000 (paper arrunta)	13,00
8. Naturagune babestuen mapa	
-1:200.000 (paper arrunta)	13,00
9. Batasuneko garrantziko lekuen eta naturagune babestuen mapak, zenbait eskalatan (BGLen edo NBen tamainaren arabekoak)	13,00
10. Nafarroako lurzorua erabileren mapa	
-1:25.000 (paper arrunta)	13,00
11. Nafarroako landaredi serieen mapa	
-1:200.000 (paper arrunta)	13,00
12. Fotogramen kopia edo handitzeak, DIN-A4 artekoak	
-Paper arrunta	4,30
-Argazki papera	6,45

13. Planoak eskaneatu eta kopiatzea	
-ISO A0 tamainakoa (paper arrunta)	18,00
-ISO A0 tamainakoa (argazki papera)	25,00
-ISO A1 tamainakoa (paper arrunta)	13,00
-ISO A1 tamainakoa (argazki papera)	18,00
-ISO A2 tamainakoa (paper arrunta)	8,60
-ISO A2 tamainakoa (argazki papera)	13,00
-ISO A3 tamainakoa (paper arrunta)	6,45
-ISO A3 tamainakoa (argazki papera)	8,60
-ISO A4 tamainakoa (paper arrunta)	4,30
-ISO A4 tamainakoa (argazki papera)	6,45

c) Kartografia digitala:

IZENA	Euroak
1. Iruñeko mapa geoteknikoaren CDa (1:25.000) eta Memoria (PDFa)	10,75
2. CDa, (*) produktuen gaineko informazioa duena, 550 megabytekoa gehienez ere	10,75
3. DVDA, (*) produktuen gaineko informazioa duena, 3.550 megabytekoa gehienez ere	65,00
4. Edukiera desberdinetako USB memoriak. Gigabyte bakoitza (1024 megabyte) prezio honetan	18,50

(*) Hurrengo taulak CD edo DVD euskarrietan edo USB memorian saltzen diren produktuen izenak dakartza haien tamainaren arabera (bytetan):

PRODUKTUAREN IZENA
Kartografia topografikoa 1:500 (dgn, dwg, dxf eta pdf)
Nafarroako mapa topografikoa 1:5.000 (dgn, dwg, dxf eta pdf)
Nafarroako mapa topografikoa 1:10.000 (dgn, dwg, dxf eta pdf)
Nafarroako mapa topografikoa 1:100.000 orria (pdf)
Nafarroako mapa topografikoa 1:100.000 osoa (pdf)
Nafarroako mapa topografikoa 1:200.000 (pdf)
Nafarroako mapa topografikoa 1:400.000 (pdf)
Nafarroako mapa topografikoa 1:850.000 (pdf)
Ortoargazkia 1:2.000 (tiff, jpeg, ecw)
Ortoargazkia 1:5.000 (tiff, jpeg, ecw)
Ortoargazkia 1:10.000 (tiff, jpeg, ecw)
Ortoargazkia 01:25.000 (tiff, jpeg, ecw)
Nafarroako mapa geologikoa 1:25.000 (PDF)
Nafarroako mapa geologikoaren orri baten memoria, 1:25.000 (PDF)
Lurraldearen eredu digitala
Nafarroako LIDAR
Fotograma digitalak edo eskaneatuak
Eskaneatuak (planoak edo ortoargazkimapak)

d) Argazkiak zuri-beltzean edo koloretan:

IZENA	Euroak
Fotograma (24 x 24)	32,50
Handitzea (21 x 29)	32,50
Handitzea (24 x 24)	32,50
Handitzea (50 x 50)	41,25
Handitzea (50 x 60)	41,25
Handitzea (70 x 70)	41,25
Handitzea (70 x 80)	64,00
Handitzea (80 x 90)	64,00
Handitzea (100 x 100)	64,00

e) Beste produktu batzuk:

IZENA	Euroak
1. Kartografiako katalogoa	9,70
2. Nafarroako atlasa (Errepideak, Turismoa eta Ingurumena)	13,00
3. Erliebezko planoen poltsa	0,20
4. Paperezko planoen poltsa	0,15

5. Murriztapenak.

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoen eta Nafarroako toki entitateen menpeko sozietate publikoek eta erakundeek, unibertsitateek eta ikastetxeek ehuneko 25eko beherapena izanen dute 4. apartatuko tarifetan.

b) 4.d) apartatuan jasotzen den tarifari dagokionez, 10 aletik gorako eskaeretan, bai koloreta-koetan bai zuri eta beltzekoetan, oro har honako beherapen hauek egingen dira:

KONTZEPTUA		Beharapena (%)
Kontaktu eta diapositibetan	10 unitatetik gora	5
	20 unitatetik gora	10
	50 unitatetik gora	15
	100 unitatetik gora	20
Handitzeetan	10 unitatetik gora	5
	20 unitatetik gora	10
	50 unitatetik gora	15
	100 unitatetik gora	20

29. artikulua. Nafarroako Kirol Erregistroaren jarduketaren tasa.

1. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da Nafarroako Kiro-laren Erregistroan, indarra duten xedapenekin bat, gaitu edo inskribatu beharreko kirol klubei, kirol klub filialei eta kirola sustatzeko erakundeei dagozkien egintza, egitate eta agirien inskripzioa eta egiaztapena.

2. Subjektu pasiboak.

Tasa honen subjektu pasiboak dira 1. aparta-tuan aipatzen diren zerbitzuak emateko eskaera egiten duten pertsona fisikoak edo juridikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da zerga-egitatea osatzen duen zerbitzua emateko eskaera aurkezten den unean.

4. Tarifak.

Tasa eskatuko da tarifa hauen arabera:

		Euroak
1. TARIFA	Eraketa inskribatzea	10,77
2. TARIFA	Estatutuen aldaketa inskribatzea	5,33
3. TARIFA	Ziurtagiriak egitea	7,14
4. TARIFA	Estatutuen kopia egitea	7,14

30. artikulua. Ikus-entzunezko komunikazioaren arloko administrazio zerbitzuak emateagatikoa tasa

1. Zerga-egitatea

Tasa honen zerga-egitatea osatzen dute Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ematen dituen zerbitzu hauek:

a) Irratiko eta telebistako ikus-entzunezko komunikazio zerbitzua emateko lizentzia ematea, bai hasierakoa bai berritzea, baita, hala dagokionean, aldez aurretiko komunikazioa ere.

b) Negozio juridikoak baimentzea, horien xedea ikus-entzunezko komunikazio lizentzia bat denean, Ikus-entzunezko Komunikazio Zerbitzuei buruzko urtarrilaren 25eko 5/2012 Foru Dekretuarekin bat.

c) Aldaketa idazpenen idatzoharra jasotzea eta Nafarroako ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuen emaileen Erregistroan inskribatutako datuen ziurtagiriak egitea.

d) Ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuak ematen dituzten estudio eta zentroetan ikustaldiak eta ikuskapenak egitea, Ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuei buruzko urtarrilaren 25eko 5/2012 Foru Dekretuan ezarri diren ikuskapen eginkizunak betez.

2. Subjektu pasiboa

Tasaren subjektu pasiboak dira aurreko artikuluan aipaturiko zerbitzuak eskatzen dituzten edo, irriti eta telebisten arloan indarra duen araudiak

ezartzen duenari jarraikiz, horretara behartuta dauden pertsona fisiko edo juridikoak, baita Tributuiei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren 25. artikuluan ageri diren entitateak ere.

3. Sortzapena

Tasa sortuko da irizpide hauek erabiliz:

a) Lizentzia eman eta berritzean, behin betiko emakidaren erabakia jakinarazten denean edo lizentzia berritzen denean.

Aldez aurreko komunikazioa behar den kasuetan, kontrol jarduera egiten denean.

b) Lizentzia xede duten negozio juridikoak baimentzean, baimena eskatzen denean.

c) Erregistroko idazpenak egitean edo Nafarroako ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuen emaileen Erregistroan inskribatutako datuen ziurtagiriak ematean, formalizatzen edo ematen direnean. Hala ere, ordainketa aldez aurretik galdutako da, eskaera egiten den unean.

d) Egiaztapen eta ikuskapenetan, jarduketa horiek egiten direnean.

4. Tarifak

Tasa eskatuko da tarifa hauen arabera:

1. TARIFA Lizentziak eman eta berritzea edo ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuak kontrolatzeko administrazio jarduera.

Lehena. Ikus-entzunezko komunikazio zerbitzua, 10.000 biztanle arteko eremua hartzen duena: 300,00 euro.

Bigarrena. Ikus-entzunezko komunikazio zerbitzua, 10.001 biztanletik 50.000 biztanlera arteko eremua hartzen duena: 600,00 euro.

Hirugarrena. Ikus-entzunezko komunikazio zerbitzua, 50.000 biztanletik gorako eremua hartzen duena: 3.000,00 euro.

2. TARIFA Negozio juridikoak baimentzea ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuetako lizentzien titularrentzat.

a) Lizentziaren errentamendua. Baimendutako negozio juridikoan ezarritako errentamenduaren urteko zenbatekoaren ehuneko 2,5eko tasa ezartzen da, urteko. Dena den, urteko tasa aplikagarria ez da kopuru hauek baino txikiagoa izanen:

Lehena. Ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuaren lizentzia, 10.000 biztanle arteko eremua hartzen duena: 30,00 euro.

Bigarrena. Ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuaren lizentzia, 10.001 biztanletik 50.000 biztanlera arteko eremua hartzen duena: 60,00 euro.

Hirugarrena. Ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuaren lizentzia, 50.000 biztanletik gorako eremua hartzen duena: 300 euro.

b) Lizentzia eskualdatzea eta beste negozio juridiko batzuk. Baimendutako negozio juridikoaren arabera eskualdatzeak egiten duen zenbatekoaren ehuneko 2,5eko tasa ezartzen da. Dena den, tasa aplikagarria ez da kopuru hauek baino txikiagoa izanen:

Lehena. Ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuaren lizentzia, 10.000 biztanle arteko eremua hartzen duena: 300,00 euro.

Bigarrena. Ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuaren lizentzia, 10.001 biztanletik 50.000 biztanlera arteko eremua hartzen duena: 600,00 euro.

Hirugarrena. Ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuaren lizentzia, 50.000 biztanletik gorako eremua hartzen duena: 3.000,00 euro.

3. TARIFA Nafarroako ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuen emaileen Erregistroan inskribatutako datuen aldaketen idazpenak eta ziurtagiriak.

Lehena. Aldaketen idazpenak: 30,00 euro idazpen bakoitzeko.

Bigarrena. Erregistroko ziurtagiriak: 30,00 euro ziurtagiri bakoitzeko

Hirugarrena. Ikus-entzunezko zerbitzuak egiaztatu eta ikuskatzeko bisitak: 363,41 euro bisita bakoitza.

5. Salbuetsirik egonen dira irabazi-asmorik gabeko ikus-entzunezko komunikazio zerbitzu komunitarioak eta ikus-entzunezko komunikazioen zerbitzu publikoak, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Lege Orokorraren 32. eta 40. artikuluetan zehaztuak, hurrenez hurren.

31. artikulua. Dokumentu ondareko agirien erreprografia zerbitzuaren tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da dokumentu ondareko agirien erreprografia zerbitzua ematea.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira zerga-egitatea osatzen duten zerbitzuak emateko eskaera egiten duten pertsona fisikoak edo juridikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da zerga-egitatea osatzen duen zerbitzuaren eskaera aurkezten den unean.

4. Tarifak.

Tasa eskatuko da tarifa hauen arabera:

A. KOPIAK PAPEREAN		Euroak/unitatea
1. TARIFA	Fotokopia	
	1. DIN-A4 neurriko fotokopia	0,10
	2. DIN-A3 neurriko fotokopia	0,20
2. TARIFA	Kopia, mikroforma	
	1. DIN-A4 neurriko kopia	0,20
3. TARIFA	Kopia, irudi digitala	
	1. DIN-A4 neurriko kopia	0,15
4. TARIFA	Zerrendak	
	1. DIN-A4 neurriko kopia	0,10

B. KOPIA DIGITALAK		Euroak/unitatea
1. TARIFA	Irudiak	
	1. Irudi digitalizatua bikoiztea	0,15
	2. Argazki automatizatuaren bidezko irudia	0,10
	3. Formatu estandarreko argazkiaren bidezko irudia	0,30
	4. Formatu bereziko argazkiaren bidezko irudia	2,00
	5. Bereizmen handiko irudia erabilera zientifiko edo kulturalerako	5,00
2. TARIFA	Zerrendak	
	1. Erregistro deskribatzaileen bilaketa	2,00
3. TARIFA	Biltegiatze unitatean grabatzea	
	1. CD/DVD euskarria	1,00

C. ERREPRODUKZIOAK SALMENTA XEDEZ LAGATZEA		Euroak/unitatea
1. TARIFA	Argitalpen produktuetarako	
	1. Barneko irudia orrialdearen zati batean	10,00
	2. Barneko irudia orrialde osoan	20,00
	3. Irudia azalean	50,00
2. TARIFA	Erakusketetarako	
	1. Irudia erakusketa panelean	50,00
3. TARIFA	Merkataritza produktuetarako	
	1. Irudia faksimile erreprodukziorako	75,00
	2. Irudia kartel edo horma-irudirako	100,00
	3. Irudia paper-gauzetarako eta publizitaterako	125,00

III. KAPITULUA**Ezagutzen edo egoera pertsonalen gaineko ziurtagiriak eta tituluak emateagatiko tasak**

32. artikulua. Desgaitasuna egiaztatzen duen txartelaren kopia egiteagatiko tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da desgaitasuna egiaztatzen duen txartelaren kopia egitea.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira txartel horren kopia egiteko eskaera aurkezten duten pertsona fisikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da txartela egiteko eskaera aurkezten den unean.

4. Tarifa.

Tarifa 5 eurokoa izanen da txartel bakoitzeko.

33. artikulua. Ehiza lizentziak eta ehiza barrutietako matrikulak emateagatiko tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da ehizan aritzeko, lege indardunen arabera, beharrezkoak diren lizentziak eta matrikulak emateari dagozkion zerbitzu administratiboak, 4. apartatuan zehazten direnak, ematea.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira lizentzia edo matrikula eskuratzen duten pertsona fisikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortu eta eskatuko da lizentzia edo matrikula eskatzen den unean.

4. Tarifa.

Tasa eskatuko da tarifa hauen arabera:

1. tarifa.- Ehiza lizentzia: 69,32 euro, bost urteko indarraldirako edo 13,86 euro urteko.

2. tarifa.- Ehiztarien azterketa: 12,48 euro.

3. tarifa.- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titulartasuneko barrutietako ehiza baimenak: 6,24 euro.

4. tarifa.- Ehiza barrutien matrikula.

Ehiza barrutietako matrikulei dagozkien tasak ehiza barrutiaren ehiza errentaren ehuneko 15 adinako zenbatekoak osatuko du; errenta honela ebaluatuko da:

a) Azalera unitate bakoitzeko batez beste duten etekinaren ondorioetarako, ehiza unitate baliokidetan emana (U.B.), ehiza barrutiak talde hauetan sailkatuta daude:

Ehiza larria	
I. taldea	60 U.B., 100 hektareako edo azalera gutxiagoko
II. taldea	60 U.B. baino gehiago eta 120 U.B. gehienez, 100 hektareako
III. taldea	120 U.B. baino gehiago eta 180 U.B. gehienez, 100 hektareako
IV. taldea	180 U.B. baino gehiago, 100 hektareako
Ehiza xehea	
I. taldea	0,30 U.B., hektareako edo gutxiagoko azalerako
II. taldea	0,30 U.B. baino gehiago eta 0,80 U.B. gehienez, hektareako
III. taldea	0,80 U.B. baino gehiago eta 1,50 U.B. gehienez, hektareako
IV. taldea	1,50 U.B. baino gehiago, hektareako

Ehiza espezieen baliokidetzak aplikatuko da arloaren gaineko erregelamenduzko arauetan aurreikusitakoaren arabera.

b) Azalera unitate bakoitzeko ehiza errentari atxikitzen ahal zaizkion balioak hauek izanen dira talde horietako bakoitzean:

Ehiza larria	
I. taldea	0,56 euro, hektarea bakoitzeko
II. taldea	0,87 euro, hektarea bakoitzeko
III. taldea	1,20 euro, hektarea bakoitzeko
IV. taldea	1,82 euro, hektarea bakoitzeko
Ehiza xehea	
I. taldea	0,19 euro, hektarea bakoitzeko
II. taldea	0,37 euro, hektarea bakoitzeko
III. taldea	0,75 euro, hektarea bakoitzeko
IV. taldea	1,25 euro, hektarea bakoitzeko

c) Aprobetxamendu nagusia zein den, ehiza larriaren edo xehearen taldeetan sailkatutako ehiza barrutietan, aldi berean, ehiza larriko edo xeheko espezieak ere ustiatzen badira, hurrenez hurren, ehiza errentari atxikitzen ahal zaion balioa izanen da bere taldeari dagokiona gehi 0,06 euro hektarea bakoitzeko.

5. tarifa- Aldi baterako ehiza baimenak: 12,00 euro baimen bakoitzeko.

34. artikulua. Arrantza baimenaren tasa

1. Zerga-egitatea.

Zerga-egitatea da Nafarroako Gobernuak ezarritako arrantza barrutietan arrantza egiteko baimenak ematea.

Barruti horietan arrantza egiteko baimen horiek ez dute loturarik 35. artikuluan aipatzen diren arrantza lizentziekin, zeinak izan beharko baitituzte, kasu guztietan, baimen mota hori duten eskaizailleek.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira Nafarroako Gobernuak ezarritako barrutietan arrantza egiteko baimena ematea eskatzen duten pertsona fisikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortu eta ordainduko da arrantza egiteko baimena eskatzen den unean.

4. Tarifak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titulartasuna duten barrutietan arrantza-baimenei dagozkien tasen zenbatekoa honako hau izanen da:

–Amuarrainen barruti naturalak (arraina harrapatu eta askatzekoa): 6,00 euro.

–Amuarrainen barruti naturalak (arraina harrapatu eta eramatekoa): 12,00 euro.

–Amuarrainen barruti intentsiboak (arraina harrapatu eta askatzekoa): 6,00 euro.

–Amuarrainen barruti intentsiboak (arraina harrapatu eta eramatekoa): 12,00 euro.

–Karramarro exotikoak modu kontrolatuan harrapatu eta eramateko tarreak: 6,00 euro.

–Tasa murriztua: 6,00 euro.

Arestian xedatutakoaren ondorioetarako, tarifa murriztua izan dezakete, beren gorabehera sozialak direla-eta, landa garapenaren eta ingurumenaren arloan eskumena duen departamentuak erabakitzen dituen pertsona fisikoek.

35. artikulua. Arrantza kontinentaleko lizentziaren tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da arrantza kontinentalean aritzeko, lege indardunen arabera, beharrezkoak diren lizentziei dagozkien administrazio zerbitzuak ematea.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira arrantza kontinentalerako beharrezkoak diren lizentziak eskatzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortu eta eskatuko da lizentziak eskatzen diren unean.

4. Tarifak.

Tasa eskatuko da tarifa hauen arabera:

		Euroak
1	5 urteko indarraldia duen lizentzia	60,00
2	Urteko lizentzia	12,00

36. artikulua. Tituluak emateagatiko eta beste kontzeptu batzuegatiko tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea honako hau da:

a) Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikotik datozen erdi eta goi mailako graduak tituluak ematea eta horietan sartzeko probetan inskribatzea.

b) Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikotik datozen lanbide gaitasunak ebaluatu eta egiaztatzekeo prozeduran inskribatzea.

C) Hizkuntza mailaren ziurtagiriak eta Euskarengaitasun Agiria ematea.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira zerga-egitatea osatzen duten zerbitzuak emateko eskaera egiten duten pertsona fisikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da zerga-egitatea osatzen duten zerbitzua emateko eskaera aurkezten den unean.

4. Tarifak:

Tasa eskatuko da tarifa hauen arabera:

		Euroak
1. TARIFA	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua	Doakoa
2. TARIFA	Tituluaren Europako osagarria (SET)	Doakoa
3. TARIFA	Batxilergoko titulua	50,20
4. TARIFA	Teknikari titulua	50,20
5. TARIFA	Goi mailako teknikari titulua	72,80
6. TARIFA	Musikako lanbide titulua	50,20
7. TARIFA	Hizkuntzen B1 mailako/oinarriko zikloko ziurtagiriak	10,40
8. TARIFA	Hizkuntzen B2 mailako/goi zikloko ziurtagiriak	29,10
9. TARIFA	Hizkuntzen C1/C2 ziurtagiria	35,40
10. TARIFA	Euskararen Gaitasun Agiria	35,40
11. TARIFA	Arte ikasketetako goi mailako titulua	106,20
12. TARIFA	Kopiak	
	A) 2. tarifatik 11.era bitarteko tituluak, bi horiek barne	10,40
	B) Bigarren Hezkuntzako graduatu tituluarena	Doakoa
13. TARIFA	Erdi mailan eta goi mailan sartzeko proba. Inskripzioa	18,00
14. TARIFA	Lanbide gaitasunak ebaluatu eta egiaztatzekeo prozeduran izena ematea	
	Aholkularitza faserako izena ematea	20,00
	Ebaluazio faserako izena ematea. Hautagaiak izena ematen duten gaitasunaren unitate bakoitzeko	10,00
15. TARIFA	Izena ematea araubide bereziko kirol ikasketetan sartzeko proba espezifikotetan	45,00

16. TARIFA	Izena ematea araubide bereziko kirol ikasketetan sartzeko proba espezifikoetan; modalitate hauetan, hain zuzen: "Mendi-kirolak eta eskalada", "Neguko kirolak", "Hipika" eta "Bela"	80,00
17. TARIFA	Lanbide Heziketako teknikariaren edo goi mailako teknikariaren titulua lortzeko proba libre modularretan izena ematea	10,00
18. TARIFA	Goi mailako arte ikasketetan sartzeko heldutasun probak	18,00

5. Zerga onurak.

A) 4. apartatuan aurreikusitako zerbitzu guztiei aplikatuko zaizkie, 16. tarifak arautzen duen zerbitzuari izan ezik.

a) Familia ugariak:

Lehen. Salbuespena, kategoria bereziko familia ugarietako kideentzat.

Bigarrena. Ehuneko 50eko hobaria kategoria orokorreko familia ugarietako kideentzat.

b) Familia gurasobakarrak edo gurasobakartasun egoeran daudenak:

Lehen. Salbuespena, kategoria bereziko familietako kideentzat.

Bigarrena. Ehuneko 50eko hobaria kategoria bereziko familietako kideentzat.

c) Salbuespena, ekintza terroristen biktimenentzat, baita haien ezkontide edo bikotekide egonkorrentzat eta seme-alabentzat ere.

d) Salbuespena, genero indarkeriako ekintzen biktimenentzat, baita haien seme-alabentzat ere.

e) Desgaitasun aitortua dutenak:

Lehen. Salbuespena, 100eko 65eko edo hortik gorako desgaitasun aitortua dutenentzat.

Bigarrena. 100eko 50eko hobaria, 100eko 33ko edo hortik gorako desgaitasun aitortua duten pertsonentzat.

B) 15. tarifiari aurreikusitako zerbitzuari aplikatuko zaio: langabeentzako salbuespena, baldin eta prozeduran izena eman aurretik hilabetez gutxienez langabezian egon direla frogatzen badute, organo eskudunak emandako txartela aurkeztuz.

37. artikulua. Liburutegiko irakurle txartelaren kopia egiteagatik tasa.

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde

autonomoek liburutegiko irakurlearen txartelaren bikoizketa egitea, pertsona fisiko batek eskaturik.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira liburutegiko irakurlearen txartelaren kopia egitea eskatzen duten pertsona fisikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da subjektu pasiboak liburutegiko irakurlearen txartelaren kopia eskatzen duen unean.

4. Tarifa.

Tarifa 5,00 eurokoa izanen da liburutegiko irakurlearen txartelaren kopia bakoitzeko.

38. artikulua. Enpresei eta prestakuntza zentroi administrazio zerbitzuak emateagatik tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da enpresei eta ekimen pribatuko prestakuntza zentroi baimena ematea profesionaltasun ziurtagirietarako prestakuntza (funts publikoen bidezko finantzaziorik gabea) emateko, prestakuntza horien ebaluazioa, jarraipena eta kontrola egiteko eta kualifikazioa egiaztatzeko.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira haren zerga-egitatea osatzen duten zerbitzuak eskatzen edo haietatik onura ateratzen duten enpresak eta ekimen pribatuko prestakuntza zentroak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko den unea:

a) Baimen fasean: prestakuntza emateko baimena eskatzen denean.

b) Kualifikazioaren ebaluazio, jarraipen, kontrol eta egiaztapen fasean: prestakuntza hasi baino lehen.

4. Tarifak.

Tasa eskatuko da tarifa hauen arabera:

a) Baimen fasean:

Lehena. Prestakuntza modulu solteak: 200,00 euro modulu bakoitzeko.

Bigarrena. Ikastaro osoa: 300,00 euro ikastaro bakoitzeko.

b) Ebaluazio, jarraipen, kontrol eta egiaztapen fasea:

Lehena. Prestakuntza modulu solteak: 200,00 euro modulu bakoitzeko.

Bigarrena. Ikastaro osoa: 300,00 euro ikastaro bakoitzeko.

39. artikulua. Lanbide gaitasunak ebaluatu eta egiaztatzeko prozeduran izena emateagatiko tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da izena ematea pertsonen lan-esperientzian edo prestakuntza bide ez-formaletan lortutako lanbide gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozeduretan.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira prozeduran izena emateko eskaera aurkezten duten pertsona fisikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da izena emateko eskaera aurkezten den unean.

4. Tarifak.

Tasa eskatuko da tarifa hauen arabera:

a) Aholkularitza faserako izena ematea: 20,00 euro.

b) Ebaluazio faserako izena ematea. Hautagaiak izena ematen duen gaitasunaren unitate bakoitzeko: 10,00 euro.

40. artikulua. Profesionaltasun ziurtagiriak emateagatiko tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da profesionaltasun ziurtagiriak ematea, jatorrizkoak nahiz kopiak.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira ziurtagiriak emateko eskaera aurkezten duten pertsona fisikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da ziurtagiria eskatzen den unean.

4. Tarifa.

Tarifa 10,00 eurokoa izanen da emandako ziurtagiri edo haren kopia bakoitzeko.

IV. KAPITULUA**Osasunaren arloko tasak**

41. artikulua. Osasun zerbitzuen tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da 4. apartatuan aipatzen diren zerbitzuak ematea.

Zerga-egitatea gertatuko da zerbitzuak Foru Komunitateko Administrazioaren ekimenez ematen direnean eta interesdunek beraiek eskatzen dituztenean.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira 4. apartatuan aipatzen diren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da zerbitzua ematean.

Halere, zerbitzua interesdunaren ekimenez ematen denean, tasa eskatuko da eskaera egiten denean.

4. Tarifak:

Tasa eskatuko da tarifa hauen arabera:

Lehena. Osasun zentro, zerbitzu eta establezimenduak.

		Euroak
A)	Barneratze zerbitzua duten zentroak	
	Sortzeko eta funtzionamendurako baimena tramitatzea	195,00
	Hasierako egitura eta/edo araubidea aldatzeko edo baliozkotzeko baimena tramitatzea	130,00
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua	130,00
B)	Barneratzerik gabeko zentroak	
	Sortzeko eta funtzionamendurako baimena tramitatzea	100,00
	Hasierako egitura eta/edo araubidea aldatzea edo baliozkotzea tramitatzea	65,00
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua	65,00
C)	Osasun arloko garraioa	
	Anbulantzien osasun ziurtagiria tramitatzea	65,00
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua	65,00
D)	Osasun zentro eta establezimenduen osasun arloko publizitaterako baimena	35,00
E)	Prestakuntza zentroak	
	Desfibriladore ikastaroak emateko zentroentzako baimena	35,00

Bigarrena. Farmazia establezimenduak:

		Euroak
A)	Farmaziak	
	Paratzeko baimena	225,00
	Farmazia tokiz aldatzea edo lokalak aldatzea	150,00
	Titularra aldatzeko baimena	75,00
	Jarduerak jardunbide egokiekin bat egiten direla egiaztatzea	225,00
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua	75,00
B)	Gizaki eta/edo animalientzako botikak banatzeko biltegiak	
	Paratzeko baimena	225,00
	Biltegia tokiz aldatzea edo lokalak aldatzea	190,00
	Titularra aldatzeko baimena	75,00
	Botiken banaketa ikuskatzea eta jardunbide egokiekin bat egiten dela egiaztatzea. Ikuskapenean eta/edo egiaztapenean emandako egun bakoitzeko.	450,00
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua	75,00
C)	Farmazia zerbitzuak	
	Paratzeko baimena	225,00
	Farmazia zerbitzua tokiz aldatzea edo lokalak aldatzea	150,00
	Titularra aldatzeko baimena	75,00
	Jarduerak jardunbide egokiekin bat egiten direla egiaztatzea	450,00

	Farmazia Industriako ikuskatzea eta jarduerak farmakozaintzaren jardunbide egokiekin bat egiten direla egiaztatzea. Ikusapenean eta/edo egiaztapenean emandako egun bakoitzeko.	450,00
	Ikusapen arautua edo alderdi batek eskatua	75,00
D)	Botika-kutxak eta botiken biltegiak	
	Paratzeko baimena	125,00
	Aldatzeko baimena	75,00
	Ikusapen arautua edo alderdi batek eskatua	75,00
E)	Pertsona edo/eta animalientzako medikamentuak eta haien printzipio aktiboak prestatzen dituen industria	
	Ikuskatzea eta fabrikazio onerako arauak betetzen diren egiaztatzea. Ikusapenean eta/edo egiaztapenean emandako egun bakoitzeko	450,00
	Publizitatea baimentzea	125,00
	Ikusapen arautua edo alderdi batek eskatua	75,00
	Botikak eta beste produktu batzuk baimendu ondoko azterlanak. Baimena ematea	600,00
F)	Kosmetikoak	
	Fabrikazio onerako arauak ikuskatu eta egiaztatzea. Ikusapenean eta/edo egiaztapenean emandako egun bakoitzeko	450,00
	Merkaturatzearen arduradunak erregistroan inskribatzea	40,00
	Ikusapen arautua edo alderdi batek eskatua	75,00
G)	Osasun produktuak	
	Optikak eta farmazia bulegoetako optika atalak baimentzea	225,00
	Audio-protesiaren zentroak baimentzea	225,00
	Ortopediak baimentzea	225,00
	Hortz protesiaren laborategia baimentzea	225,00
	Osasun produktuen publizitatea baimentzea	125,00
	Lehenagoko ataletan sartu ez diren neurriak egindako osasun produktuak fabrikatzeko funtzionamendurako lizentzia	
	Ematea	225,00
	Baliozkotzea	65,00
	Aldaketa	65,00
	Jarduera jakinarazi behar duten establezimenduen jakinarazpenaren baldintzak aldatzea	75,00
	Ikusapen arautua edo alderdi batek eskatua	75,00
	Osasun produktuen establezimenduen baimena baliozkotzea eta/edo aldatzea	150,00
Jarduera jakinarazi behar duten establezimenduen jakinarazpena tramitatzea	150,00	

H)	Laborategiak, botikak kontrolatu eta/edo garatzeko zentroak	
	Laborategiak ikuskatzea eta jardunbide egokiekin bat jarduten dutela egiaztatzea. Ikuskapenean eta/edo egiaztapenean emandako egun bakoitzeko	450,00
	Ikuskatzea eta jardunbide kliniko egokiak egiaztatzea. Ikuskapenean eta/edo egiaztapenean emandako egun bakoitzeko	450,00
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua	75,00
I)	Bestelako jarduketak	
	Farmaziako zentro eta produktuen gaineko txostenak ematea, interesdunak eskaturik	125,00
	Jardunbide egokiak betetzen direla frogatzen dituzten ziurtagiriak, naziokoak zein nazioartekoak, ematea (NCF, BPL, BPC, BPD eta haien pareko beste batzuk)	100,00 (lehenbiziko ziurtagiria) 10,00 (jatorrizko kopia bakoitzeko)

Hirugarrena. Hileta-osasuna:

		Euroak
A)	Gorpu bat edo gorpuzkiak hobitik ateratzeko eta berriz ehorzteko baimena	20,00
B)	Hobitik kanpoko gorpu bat Foru Komunitatetik kanpora eramateko baimena	40,00
C)	Gorpuzkiak Foru Komunitatetik kanpora eramateko baimena	20,00

Laugarrena. Baldintza tekniko-administratiboak:

		Euroak
A)	Dokumentazio ofizialaren eginbideak, tituluaren erregistroa barne	7,00
B)	Gidabaimena eta arma lizentzia eskuratzeko azterketa psiko-fisikoa	Azterketa zentroetan aplikatzen dena
C)	Berriemateak, informazioak eta Estatuko Administrazio Orokorrari jakinarazi behar zaizkion beste jarduera batzuk tramitatzea	15,00
D)	Desfibriladoreak erabiltzeko gaitasunaren ziurtagiriak ematea	3,00
E)	Lanbide kualifikazioa aitortzeko ziurtagiriak ematea	10,00

Bosgarrena. Albaitaritza zerbitzuak.

KODEA	IZENA	TARIFA (euroak)
AZ01	Animalien osasun kontrola, ausikia gertatzen denean	25,00
AZ02	Txakurrak harrapatu eta biltzeko zerbitzuak. (Prezioak txakurreko)	60,00
AZ02.1	Txakurrak uztea Nafarroako Gobernuak duen Animaliak Babesteko Zentroan, Etxaurin (animalia bakoitzeko)	15,00
AZ02.2	Beste jabe batzuek adoptatutako txakurrak	15,00
AZ02.3	Egonaldi gastuak Nafarroako Gobernuko Animaliak Babesteko Zentroan (Etxaurin)	20,00 (1)
AZ03	Elikagaiak esportatzeko ziurtagiri ofiziala	20,00
SV03.1	Osasun ziurtapenak, elikagaiak esportatzeko	20,00
AZ04	Albaitarien jarduketa zezen ikuskizunetan. (prezioak jarduten duen albaitari bakoitzeko)	250,00

(1) 20,00 euro, gutxienez. 5. egunetik aurrera, 3,00 euro gehituko dira egonaldiaren egun bakoitzeko.

Seigarrena. Elikagaien arloko Enpresen Erregistroa.

IZENA	TARIFA (euroak)
Hasierako inskripzioa, funtzionatzeko baimena behar duten industrien erregistroan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 29ko 853/2004 (EE) Erregelamenduan ezarri bezala. Erregelamendu horren bidez, animalia-jatorriko elikagaien higienarako berariazko arauak ezartzen dira	50,00
Elkarren onarpena duten elikadura-osagarrien jakinarazpenak (jakinarazitako osagarri bakoitzeko)	10,00
Elkarren onarpenik gabeko elikadura-osagarrien jakinarazpenak (jakinarazitako osagarri bakoitzeko)	20,00

5. Salbuespenak

a) Tasa ordaintzetik salbuetsita daude nagusiki prebentziokoak diren osasun zerbitzuak, bai eta funtsean epidemiologikoak edo elikagaien arlokoak direnak edo komunitatearen osasuna zuzenean babestekoak, osasun arloko eskumena duen departamentuak ematen dituen jarraibideen arabera.

b) 4. Bigarrena E apartatuan ezarritako "Botikak eta beste produktu batzuk baimendu ondoko azterlanak" izeneko tasatik salbuetsirik daude "merkataritzako asmorik gabeko ikerketa klinikoak" diren azterketak, saiakuntza klinikoaren gaineko araudiaren arabera.

6. Hobariak

Tasaren 100eko 40ko hobarria aplikatuko da irabazi-asmorik gabeko entitateei emandako zerbitzuetan.

Hobarria aplikatzeko, interesdunak eskaera egin behar du, eta erregelamenduz ezartzen diren baldintzak bete behar ditu.

42. artikulua. Animalien eta haien produktuen osasun ikuskapen eta kontrol ofizialen tasak

1. Aplikazio-eremua

Foru Komunitateak tasa horiek eskatuko ditu Nafarroan baldin badago establezimendua, zein-an abereak hiltzen, kanalak zatitzen, haragiak biltzen edo animalietako eta haien produktuak substantziak eta hondakinak kontrolatzen baitira.

Artikulu honetan araututako tasen zenbatekoa ezin zaie hirugarren pertsonari itzuli, ez zuzenean ez zeharka, haragiaren esportazioagatik edo beste arrazoi batzuegatik.

2. Zerga-egitatea.

Tasa hauen zerga-egitatea da Foru Komunitateko Administrazioak osasun publikoa eta anima-

lien osasuna zaintzeko behar diren zerbitzuak ematea, abereen, gizakiek jateko diren haragi freskoen eta animalia-jatorria duten beste produktu batzuen osasun ikuskapen eta kontrolen bidez, dagozkien zerbitzuetako fakultatiboek gauzatuak, abereak hiltzeko, zatitzeko eta hoztuta biltegitratzeko Foru Komunitatean dauden lokal edo establezimenduetan, edo gainerako kontrol eta azterketak, horretarako gaituta dauden zentroetan.

Tributuaren ordainarazpenaren ondorioetarako, zerga-egitatean sartzen diren osasun ikuskapen eta kontroleko jarduerak honela sailkatzen dira:

a) Osasun ikuskapen eta kontrolak, abereak hil aurretik, haragi freskoak ateratzeko abere hauetatik: abelgorriak, zerriak, ardiak, ahuntzak, beste hausnarkari batzuk, untziak eta lumadun eta ile-dun ehizaki xehea, solipedoak/ekidoak eta oilategiko hegaztiak.

b) Osasun ikuskapen eta kontrolak, abereak hil ondoren, hildako abereen haragi fresko horiek lortzeko.

c) Establezimenduetan egindako eragiketen kontrol dokumentala.

d) Gizakiek jateko diren kanal, errai eta barrukien kontrola eta markaketa, eta haragia zatitzeko aretoetan lortutako piezen markaketa edo zigilaketa.

e) Gizakiek jateko diren haragi freskoak biltegitratzeko eragiketen kontrola, horrela ezartzen den unetik aurrera, salbu azken kontsumitzaileei saltzeko lokaletan egiten diren kopuru txikikoak.

f) Substantzien eta hondakinen kontrola animalien eta haien produktuetan, araudi indardunetan ezarri bezala.

3. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira, zergadun diren aldetik, zerbitzua eskatzen dutenak edo hiltze, zatitze, biltegitratze edo kontrol eragiketen hartzaileak.

4. Ordezkoak.

Honako hauek behartuta daude tributua ordaintzera, zergadunaren ordezko gisa:

a) Abereei hil aurretik edo hil ondoren egiten zaizkien osasun ikuskapen eta kontrol ofizialei dagozkien tasen kasuan, bai eta gizakiek jateko diren kanal, errai eta hondakinen markaketaren kasuan ere, hilketa edo ikuskapena egiten den establezimenduen titularrak.

b) Zatiketa eragiketen kontrolari dagozkien tasen kasuan:

a') Zatitzeko eragiketak hiltegi bertan egiten direnean, a) letran aipatzen diren pertsonak.

b') Gainerako kasuetan, zatitze eragiketarako modu independentean egiten dituzten establezimenduen titularrak.

c) Biltegitratzearen kontrolari dagozkien tasen kasuan, establezimendu horien titularrak, tasak ezartzen direnetik aurrera.

d) Animalien eta haien produktuetan dauden substantzien eta hondakinen kontrolari dagozkien tasen kasuan, kontrol eta analisi horiek egiten diren establezimenduen titularrak.

Interesdunak hirugarren batengandik eskuratu badu azienda, bizirik, gero hiltzeko, hirugarren horri eskatzen ahalko dio 2.f) apartatuan definitutako kontzeptuari dagozkien tasaren zenbatekoa.

5. Tributuaren erantzuleak.

Honako hauek tributuaren erantzuleak izanen dira subsidiarioki:

a) Beren jarduerari utzi dioten sozietateen administratzaileak, ordaindu gabeko tasei dagozkienez.

b) Porroten, konkurtsoen, sozietateen eta, oro har, entitateen sindiko, kontu-hartzaile edo likidatzaileak, baldin eta, zabarkeriaz edo fede gaiztoz, egoera horien aurretik sortutako tributu-betebeharrak, dagozkien subjektu pasiboek egotzen ahal zaizkienak, erabat betetzeko behar diren kudeaketak egiten ez badituzte.

6. Haragi freskoen eta untxi eta ehizaki haragien osasun ikuskapen eta kontrolei dagozkien tasen tarifak.

a) Zergadunari tarifa eskatuko zaio animalia bat hiltzen den bakoitzeko, zatitzeko eragiketa bakoitzeko eta biltegitratzeko kontrol bakoitzeko.

Hiltegi bertan egiten diren hilketei dagozkien tarifak bertan hiltzen diren abereen kopuruaren arabera likidatuko dira.

Abereak hiltzen direnean, hil aurreko eta ondorengo osasun ikuskapen eta kontrolerako jarduerari, eginiko eragiketen agiri bidezko kontrolari eta kanal, errai eta barrukien markaketari dagozkien tarifak, behar bezala baimenduriko establezimendu edo instalazioetan hildako abere bakoitzeko, ondorengo tauletan agertzen diren zenbatekoetan ezartzen dira:

Lehen a. Hiltegiatiko ikuskapen eta osasun kontrolatan aplikatzekoak diren tasen zenbatekoak, abere bakoitzeko:

	AZIENDA MOTA	TARIFA ABERE BAKOITZEKO (eurotan)
1. TARIFA	Abelgorrien haragia	
	1. Abelgorri pisudunak	5,00 (0,36)
	2. Abelgorri gazteak	2,00 (0,25)
2. TARIFA	Solipedoak, ekidoak	3,00 (0,21)
3. TARIFA	Txerriak, txerriek kanalean duten pisuaren arabera	
	1. 25 kilo baino gutxiagokoa.	0,50 (0,030)
	2. 25 kilo edo gehiagokoa.	1,00 (0,107)
4. TARIFA	Ardi eta ahuntzen haragia, animaliek kanalean duten pisuaren arabera	
	1. 12 kilo baino gutxiagokoa.	0,15 (0,010)
	2. 12 kilo edo gehiagokoa.	0,25 (0,029)
5. TARIFA	Hegaztien eta untzien haragia	
	1. Hegaztiak, Gallus generokoak eta pintadak	0,005 (0,001)
	2. Ahateak eta antzarak	0,010 (0,020)
	3. Indioilarrak	0,025 (0,002)
	4. Haztegiko untxiak	0,005 (0,001)
	5. Etxe-hegaztiak ez izan arren etxe-abere gisa hazten diren hegaztiak, ratiteak izan ezik	0,006 (0,001)
6. TARIFA	Haztegiko ehiza	
	1. Oreinak	0,50 (0,029)
	1. Haztegiko ehizako beste ugaztun batzuk	0,50 (0,029)

Hiltzeko diren abere bizidunengan eta tasa honen xedeko haragietan, ezarritako kontrol eta teknika analitikoei buruzko osasun araudiarekin bat, substantziak kontrolatzeko eta hondakinak

ikertzeko kontrol eragiketen tarifa hilketari aplikatzen zaion kuota osoan sartzen da, eta informaziorako xehakatzen da aurreko taulan, parentesi arteko zifren bidez.

Bigarrena. Abereak zatitzek o aretoetako ikuskapen eta osasun kontrolatan aplikatzekoak diren tasen zenbatekoak, urteko ekoizpenaren arabera:

	URTEKO EKOIZPENA	EUROTAN
1. TARIFA	Urteko 240 tonako edo hortik beherako ekoizpena duten establezimenduak.	243
2. TARIFA	Urteko 240 tonatik gorako eta 2.400 tonatik beherako ekoizpena duten establezimenduak	486
3. TARIFA	Urteko 2.400 tonako edo hortik gorako ekoizpena duten establezimenduak	729

Hirugarrena. Ehizakia eraldatzeko instalazioetako ikuskapen eta osasun kontroletan aplikatzekoak diren tasen zenbatekoak:

	AZIENDA MOTA	TARIFA ABERE BAKOITZEKO (euroak)
1. TARIFA	Lumadun ehizaki xehea	0,006
2. TARIFA	lledun ehizaki xehea	0,011
3. TARIFA	Ratiteak	0,600
4. TARIFA	Lurreko ugaztunak	
	1. Basurdeak	1,500
	2. Hausnarkariak	0,500

b) Establezimendu berean abereak hiltzeko, zatitzeko eta biltegitratzeko jarduerak modu integratuan egiten badira, zenbateko altuena duen jardueraren tasa jasoko da soilik. Ondorio horietarako, ulertuko da establezimendua dela zenbait instalazio erantsi dituena titular beraren jarduerak, abereak hiltzeko eta zatitzekoak, egiteko.

7. Esne eta esnekietako substantzien eta hondakinen kontrol eta ikerketetan aplikatzekoak diren tasen zenbatekoa.

Establezimendu horiei egindako kontrol ofizialagatik aplikatu beharreko tarifa honako hau izanen da:

	URTEKO EKOIZPENA	EUROAK
1. TARIFA	Urteko 360 tonako edo hortik beherako ekoizpena duten establezimenduak	243
2. TARIFA	Urteko 360 tonatik gorako ekoizpena duten establezimenduak	486

8. Murriztapenak hiltegiako osasun ikuskapenaren tasan.

Tasaren likidazioa egitean, tasen xedeko hiltegiatako jardueren erantzuleak diren subjektu pasiboek ondoko murriztapenak aplikatzen ahalko dituzte beren autolikidazioan, 6. apartatuko tauletan ezarritako zenbatekoak aplikatuzetik kalkulatzeko den kuotan. Murriztapenak bateragarriak dira elkarren artean likidazio bakoitzean:

a) Murriztapena lan ordutegiagatik.

100eko 30eko murriztapena tasaren tributukoan, albaitaritza zerbitzu ofizialaren presentzia bakarrik astelehenetik ostiralera lanegunetan, 06:00etatik 15:00etara, eskatzen duten hiltegiatarako eta ehizakien haragia manipulatzeko aretoetarako. Murriztapena aplikatu ahal izateko, hiru hilabete bakoitzean gehienez 100eko 5eko desbideratzea izanen da ordutegi horretan.

Albaitaritza zerbitzu ofizialaren presentzia ordutegi horretatik kanpo eskatzen duten hiltegiek

100eko 10eko murriztapena izanen dute, baldin eta gutxienez eskaeraren erdia ordutegi horretan egiten bada.

Albaitaritza zerbitzu ofizialaren presentzia larunbatetan, igandeetan edo jaiegunetan eskatzen bada, ez da murriztapenik aplikatuko kontzeptu horrengatik, egun horietan hildako edo zatitutako abereei dagokienez. Ez da aurreko baimenik behariko murriztapena aplikatzeko. Interdunek albaitaritza zerbitzu ofizialek noizean behin ematen duten informazioa erabiliko dute kontzeptu horrengatik bidezkoa den likidazioa kalkulatzeko; informazioa kudeatzen duten administrazio organoek egiaztatuko dute informazio hori, eta horren ondorioz eskatzen ahalko da murriztapenak erregularizatzeko.

Murriztapen hori bera aplikatuko da hegazti-hiltegiatarako, hiltzeko ordutegia dela-eta albaitaritza zerbitzu ofizialaren presentzia 00:00etatik 15:00etara eskatzen dutenean.

b) Murriztapena hiltegien jardueraren plangintza egin eta hura betetzeagatik.

Murriztapena aplikatzeko, hiltegiek plangintza eta programazio sistemak aplikatu behar dituzte produkzio prozesuetan, eta sistema horiei esker ikuskapen zerbitzuek gutxienez bost egun natural lehenago jakinen dute eman beharreko zerbitzuaren data.

Kontzeptu honengatik murriztapenaren zenbatekoa kalkulatzeko, 100eko 20 aplikatuko zaio kuotari.

c) Murriztapena kontrol ofizialari emandako laguntza instrumentalagatik.

Murriztapen hau aplikatzeko, establezimenduak ikuskapen zerbitzuen eskura jarri behar ditu berariazko kontrol jarduerak instalazioetan bertan gauzatzeko behar diren materiala eta ekipamendua. Hornidura instrumentala honako hauetan zehazten da: babes ekipamendu egokiak, lan espazio eta ekipamendu egokituak (lan arriskuen prebentziorako baldintzak kontuan hartuta), tresnak, zerbitzu informatikoa eta bulegoko eta komunikazioetako material egokia.

Murriztapenaren zenbatekoa kalkulatzeko, 100eko 10 aplikatuko da kuotan.

d) 100eko 20ko murriztapena, animalien higienari eta ongizateari buruzko araudiaren betetze-mailaren arabera. Murriztapen hori aplikatuko da kontrol ofizialetan egiaztatzen denean aipatutako arauak bete egiten direla.

e) Murriztapena hil aurreko kontrol eta ikuskapenak egiteagatik. Murriztapen hau aplikatzeko, jarduera horiek jatorrizko ustiatzean egin behar zaizkie hil beharreko abereei, hiltegien errepikatu beharrik gabe, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren martxoaren 15eko 625/2017 (EB) Erregelamenduan zehaztutakoarekin bat, edo sistema bat badute abereak kontrolatu eta erregistratzeko, hiltegira heltzen direnean, modu horretan hil aurreko ikuskapena erraztuz.

Kontzeptu honengatik, murriztapenaren zenbatekoa kalkulatzeko, 100eko 5 aplikatuko da kasuan kasuko espezieari dagokion kuotan.

9. Tasaren murriztapena ehizakiak eraldatzeko establezimenduetan eta plazako zezenak tratatzeko aretoetan egiten diren ikuskapen eta kontrolengatik.

Ehizakiak eraldatzeko establezimenduen eta plazako zezenak tratatzeko aretoen arduradun diren elikagai enpresek 100eko 85eko murriztapena aplikatzen ahalko dute, higienari buruzko araudiaren betetze-mailaren arabera.

10. Aldez aurreko baimena murriztapenak aplikatzeko, eta mantendu beharreko baldintzak.

a) 8. artikulua b), c), d) eta e) letretan eta 9. apartatuan ezarritako murriztapenak aplikatzeko, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak aurreko onarpena eman behar du. Hiru hilabeteko epean jakinarazi behar da, eskaera tramitazioaren organo eskudunaren erregistroan sartzen den egunetik hasita. Eskaera epe horretan ebatzen ez bada, ulertuko da interesdunak murriztapenerako eskubidea duela. Epe hori bukatu ondoren egiten duen lehenbiziko autolikidazioan aplikatu behar da.

b) Murriztapenak aplikatzen jarraitzeko, onarpena ekarri zuten inguruabarrak mantendu behar dira.

11. Sortzapena.

Animalien eta animalia-jatorriko produktuen osasun ikuskapen eta kontrolerako ezarritako tasak sortuko dira 6. eta 7. apartatuetan zerrendatzen diren zerbitzuak ematen diren unean.

12. Likidazioa eta diru-sarrera.

a) Ordezko subjektu pasiboen autolikidazio sistemaren bidez ordainduko dira tasak hiltegien, ehizakiak eraldatzeko establezimenduetan eta plazako zezenak tratatzeko aretoetan; aurreko hiruhileko naturalean sortutako tasak hurrengo hilabeteko lehen hogeitun egunetan ordaindu behar dira.

b) Animaliak zatitzeko aretoetan eta esne eta esnekien enpresetan tasak urtero ordainduko dira hurrengo urteko ekainean.

13. Erregistroa izateko betebeharra.

a) Hiltegiako eta ehizakiak eraldatzeko establezimenduetako kontrol ofizialen tasen subjektu pasiboak behartuta daude tasa horiei lotutako eragiketa guztien erregistro bat izatera:

Lehena) Hildako edo eraldatutako abereen kopurua, haien zenbakia adierazita.

Bigarrena) Eragiketen eguna eta ordua.

Hirugarrena) Abereen pisua, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak ematen dituen ereduarekin bat, formatu elektronikokoak barne.

b) Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak, tributu arloko eskumena duen departamentuarekin batera, aurreko paragrafoan aipatzen diren erregistroen ereduak ezarriko ditu, formatu elektronikokoak barne, elikagai enpresek bete beharrekoak, bai eta tasa hauen zenbatekoak ordaintzeko aurkeztu behar diren aitorpen eta autolikidazio ereduak ere

V. KAPITULUA**Trafikoaren, larrialdien eta segurtasunaren arloko tasak**

43. artikulua. Trafikoari dagozkion jardueren eta zerbitzuen tasa.

1. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da 4. apartatuan aipatzen diren zerbitzuak ematea eta jarduerak egitea.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira zerga-egitatea osatzen duten zerbitzuak eskatu edo jarduerak jasotzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da zerga-egitatea osatzen duen zerbitzua emateko eskaera aurkezten den unean.

4. Tarifak.

		Euroak	
1. TARIFA	Nafarroako Foruzaingoak zerbitzuak eman eta jarduerak egiteagatik		
	1. Nafarroako kirol federazioen egutegietatik kanpo egiten diren kirol probetako zaintza, segurtasuna eta segizioa, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan		
	1.1. Bizikleta lasterketak, etapa bakoitzeko: Kategoriak		
	a) Eskolak	116,94	
	b) Kadeteak	394,96	
	c) Juniorrak	472,18	
	d) 23z behekoak	513,00	
	e) Elitea	551,62	
	f) Masterrak	551,62	
	g) Beteranoak	513,00	
	h) Emakumeak	472,18	
	i) Profesionalak	1.105,44	
	j) Ziklokirolariak	513,00	
	1.2. Beste kirol proba batzuk		234,99
	2. Zaintza, segurtasuna eta segizioa zikloturisten ibilaldietan eta eremu publikoetan egiten diren beste jarduera batzuetan		197,47
	3. Beren ezaugarri teknikoengatik edo daramaten zamarengatik, baimendutako gehiene ko masa eta neurriak gainditu edo erregelamenduz ezarritako gutxieneko abiadurara iristen ez diren ibilgailuak eskoltatu eta kontrolatzea eta haien zirkulazioa antolatzea		32,00, ordu eta foruzain bakoitzeko
	4. Ibilgailuak eremu publikotik kentzea		
	a) Bizikletak, ziklomotorrak	23,17	
	b) Motozikletak, motogurdiak eta antzeko ibilgailuak	30,89	
	c) Automobilak, turismoak, kamionetak, furgoiak, etab., 2.000 kg bitarteko tarakoak	61,78	
	d) Kamioiak, traktoreak, atoiak, erdi-atoiak, kamionetak, furgonetak, 2.000 kg baino gehiagoko tarakoak	93,78	
	5. Ibilgailuak gordeleketan edukitzea, hara eraman eta 12 orditik aurrera, eguneko		
	a) Bizikletak, ziklomotorrak	2,20	
b) Motozikletak, motogurdiak eta antzeko ibilgailuak	5,51		
c) Automobilak, turismoak, kamionetak, furgoiak, etab., 1.000 kg bitarteko tarakoak	9,93		
d) Kamioiak, traktoreak, atoiak, erdi-atoiak, kamionetak, furgonetak, 1.000 kg baino gehiagoko tarakoak	23,17		

	6. Foruzaingoak ematen dituen txostenak	47,43
	7. Trafiko zirkulazioa arautzea, bideen aprobetxamendu sozio-ekonomikoaren ondorioz	27,58, ordu eta foruzain bakoitzeko
2. TARIFA	Zirkulazioari buruzko Erregelamendu Orokorraren 13. artikuluan arautzen diren zirkulazio baimen osagarriak ematea	
	1. Zirkulazio baimen osagarria, hilabeterako, ibilgailu motordun bakar baterako eta ibilbide bakarrerako	17,16
	2. Zirkulazio baimen osagarria, hiru hilabeterako, ibilgailu motordun bakar baterako eta ibilbide bakarrerako	34,32
	3. Zirkulazio baimen osagarria, sei hilabeterako, ibilgailu motordun bakar baterako eta ibilbide bakarrerako	63,44
	4. Zirkulazio baimen osagarria, urtebeterako, ibilgailu motordun bakar baterako eta ibilbide bakarrerako	114,40
	5. Zirkulazio baimen osagarri generikoa, orokorra eta berariazkoa, ibilgailu autopropultsatuetarako (garabiak, etab.), ibilgailu motordun bakarrerako, bi urtez ibiltzeko Nafarroako errepideen katalogoko errepide guztietan	205,92
	6. Zirkulazio baimen osagarria, sei hilabeterako eta nekazaritzako ibilgailu motordun bakar baterako	27,56
	7. Kudeaketa eta bitartekotza lanak nekazaritzako kooperatibekin, kideen ibilgailu motordunetarako zirkulazio baimen osagarriak lortzeko	426,40
	8. Zirkulazio baimen osagarria urtebeterako eta nekazaritzako ibilgailu motordun bakar baterako, nekazaritzako kooperatibetako titularrentzat, alde zuzeneko kooperatibak kudeatu duena	11,44
9. Emandako zirkulazio baimen osagarriaren titularra edo matrikula aldatzea	11,44	
3. TARIFA	Bideen erabilera sozioekonomikorako eskaerak	47,00

44. artikulua. Su-itzaltze eta salbamendu zerbitzuen tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea dira Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren jarduketak edo esku-hartzeak, bai interesdunek eskatzen dituztenean bai ofizioz egiten direnean segurtasun arrazoiak direla-eta, betiere zerbitzua emateak subjektu pasibolari onura ekartzen badio, ondoko kasuetan:

a) Errepide, trenbide, aire edo uretako istripuak.

b) Lankidetzak teknikoak:

Lehena. Ura xukatzea.

Bigarrena. Galtzada garbitzea.

Hirugarrena. Ateak irekitzea. Zerbitzu hori ez da eginen, pertsona edo ondasunentzako arrisku-

rik egon ezean; kasu horretan, suteak saihestu edo itzaltzeko esku-hartzetan edo salbamenduetan joko da. Zerbitzua eman ondoren, horretan esku hartu duten langileek egiaztatzen badute gorabeherak ez duela arriskurik ekarri pertsona edo ondasunentzat, dagokion tasa eskatuko da.

Laugarrena. Ura garraiatzea.

Bosgarrena. Alarmak, gailu elektrikoak eta gas edo ur instalazioak deskonektatzea.

Seigarrena. Eraikinen barneko edo kanpoko elementuetan esku hartzea, fatxaden saneamendua, publizitate errotuluak, alarmak, igogailuak eta antzeko beste elementu batzuk barne.

Zazpigarrena. Ingurumenerako kaltegarriak diren substantziak isurtzea.

c) Miaketak, erreskateak edo salbamenduak, honako kasu hauetan:

Lehena. Ukitutako pertsonak eguraldi txarraren alertari edo iragarpenari buruzko abisu buletin edo parteei (maila laranja, gorria edo baliokidea), zerbitzu ofizial eskudunek egindakoei, kasu egin ez dienean.

Bigarrena. Toki arriskutsuetan edo bertara iristeko zailak direnetan, onuradunak zuhurtziarik gabe edo ausartegi jokatzearen ondorio denean.

Hirugarrena. Jarduketa eremu arriskutsuetan edo sarrera debekatua edo mugatua dutenetau gauzatzen denean.

Laugarrena. Pertsonentzat arriskutsuak diren jolas eta kirol jarduera antolatuen barnean egiten denean.

Bosgarrena. Ukitutako pertsonak jarduerarako egokia den ekiporik erabiltzen ez dutenean.

Seigarrena. Identifikatzeko moduko jabea duten animaliak ukitzen dituztenean.

Zazpigarrena. Objektiboki justifikatuta dagoen arrazoirik egon gabe zerbitzua eskatzen denean, baita arriskua dagoelako simulazioa dagoenean ere.

d) Esku-hartzeak, honelakoetan: eraikinak edo instalazioak osoki edo neurri batean hondoratzea, eraikin-hondakinak, eraispinak, uholdeak eta antzekoak.

e) Prebentzio zerbitzuak:

Lehena. Lankidetzak teknikoak, prebentziokoak eta zaintzakoak, eta sutearen arriskurako edo kirol proba eta jai, kultura edo aisia jardueretako istripuetarako babesa.

Bigarrena. Suteen kontra babesteko instalazioen berrikuspena.

f) Prestakuntza praktikak, baldin eta irabaziasmoa duten jardueretatik badatoz; honako hauek daude horien barnean:

Lehena. Langileentzako prestakuntza eta praktika ikastaroak, enpresa, sozietate edo partikularrei eta, oro har, hirugarrenei emandakoak.

Bigarrena. Enpresa pribatuetan edo hirugarrenentzat lehen esku-hartzeko lantaldeak trebatzea.

Hirugarrena. Kalitate sistemak edo antzeko prozesuak egiaztatzea dakarten simulazioetan parte hartzea.

2. Subjektu pasiboa.

Tasaren subjektu pasiboak dira, entitateen zergadunak diren aldetik, zerga-egitatea osatzen duen jarduketa edo esku-hartzeagatik pertsonalki edo beren ondasunetan onura hartzen duten entitateak, erakundeak edo pertsona fisikoak edo juridikoak.

Halaber, tasaren subjektu pasiboak dira tasari lotutako zerbitzuak ematea eragin duten kirol, jai, kultura edo aisia jarduerak antolatzen dituztenak. Kasu horretan, tasa ordaintzearen erantzule subsidiarioak izanen dira aurreko paragrafoan adierazitako subjektu pasiboak.

Zerbitzuaren onuradun bat baino gehiago bada, tasa proportzionalki egotziko da, kontuan hartuz haietako bakoitzaren alde egindako lanetan erabilitako baliabideak, betiere txosten teknikoan oinarrituta, eta horrela banan-banan bereiztea ezinezkoa bada, parte berdina egotziko zaio bakoitzari.

Nolanahi ere, arriskua dagoelako simulazioa egiten denean, subjektu pasibotzat joko da simulazio horren erantzulea.

Subjektu pasiboak kontratatuta badu tasa honen xede diren kasuak estaltzen dituen aseguru-poliza bat, aseguru entitateak edo sozietateak ordezkotako subjektu pasiboak izanen dira.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da, hain zuzen ere, behar den taldea suhiltzaileen parketik edo aireko baliabideak kokatuak dauden tokitik ateratzen den unean berean, une hori hartuko baita zerbitzuaren prestazioaren hasieratzat.

4. Kuota.

Zerbitzua ematean erabili diren pertsona eta material unitateen arabera eta behar izandako denboraren arabera zehaztuko da tributu-kuota.

5. Tarifa.

a) Tasaren zenbatekoa honako zenbatekoen arabera zehaztuko da:

		EUROAK
1. Esku-hartzea, aritutako pertsona bakoitzeko (Zenbatekoa orduko edo zatikiko)		35,00
2. Ibilgailuen esku-hartzea (Zenbatekoa orduko edo zatikiko)	Autoeskala edo ibilgailu berezia (PMA, kimikoa, lantegia...)	250,00
	Autoponpa-tankea-anbulantzia	100,00
	Furgoia, autoa edo lur orotako ibilgailuak	35,00
	MotoPONPA, elektroPONPA, multzo hidraulikoa	15,00
	Txalupa motorduna	35,00
Parketik irteten denetik itzuli arte egindako kilometro bakoitzeko, 0,80 euro ordainduko da ibilgailu bakoitzeko		
3. Aireko baliabideen esku-hartzea (orduko edo zatikiko)	Osasun garraioko helikopteroa	1.800,00
	Salbamendurako helikopteroa	1.400,00
4. Baliabide materialak	Arnasketa autonomoko ERA ekipoen erabilera (unitatea)	15,00
	Apar-hautseko 10 litroko	80,00
	Diluituan erabiltzeko koipegabetzailea (litroa)	1,50
	Xurgatzailea (zakua)	15,00
	Beso teleskopikoa (eguneko edo zatikiko)	10,00
	Trakzio-konpresiorako beso egonkortzailea (eguneko edo zatikiko)	25,00
	Gas askotako detektagailua, leherketa-neurgailua (neurketako)	20,00
	Barrera xurgatzaileak (unitatea)	275,00
	Su-itxalgailua (unitatea)	25,00
	Motozerrak, edo egurra edo metala mozteko ekipoa (orduko edo zatikiko)	60,00
	Uretan murgiltzeko ekipamendu osoa	15,00
5. Ateak irekitzea	Aurreko epigrafeak aplikatuz datorrena, baina esku-hartzearen gutxieneko kuota 170 eurokoa izanen da.	
6. Gastu orokorrak	Langileen ekipoaren narriaduragatik eta zerbitzu orokorregatik % 5 gehituko da guztira fakturatutako zenbatekoa	
7. Gorabeherak gai arriskutsuekin	Aplikatu beharreko lege xedapenek onartzen ez dituzten kantitate edo egoeretan substantzia toxikoak, sukoiak, leherkorak eta abar dituzten gorabeheretan, dena delako tarifa % 100 gehituko da	
8. Hirugarrenentzako prestakuntza ikastaroak	Ikasleko, egunean	25,00
	Ikastaroko instruktoreko, orduko edo zatikiko	70,00

b) Zerga-egitatea osatzen duen prestazioa amaiturik, eskuduna den organoak tasaren likidazioa igorriko du, bertan zehazturik zenbat denbora eta baliabide erabili diren eta zein den haren zenbatekoa, atal honetan ezarritako tarifaren arabera.

6. Salbuespenak.

1. apartatuko b), c) eta d) letretako zerbitzuak salbuetsita daude tasa ordaintzetik, baldin eta zerbitzuaren eskaera edo prestazioa egiten bada onuradunari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, edo arrazoi ustekabekoengatik edo saihestezinengatik.

Salbuespen hori ezin da aplikatu, inolaz ere, baldin eta aplikatu beharreko indarreko araudia betetzen ez bada, edo eraikuntzek egiturazko kalteak badituzte, higiezina behar bezala ez mantentzeagatik eta ez kontserbatzeagatik sortuak.

45. artikulua. Errepideak defendatzearen eta bide ustiapeneko txostenen arloan baimena behar duten jarduerak egiteagatikoko tasak

1. Zerga-egitatea.

4. Tarifak.

	Euroak
1. Errepidearen zelaigunea eta eremu funtzional eta zerbitzukoak ukitzen dituen baimena.	
a. 6.000,00 euro bitarteko aurrekontua	50,00
b. 60.000,00 euro bitarteko aurrekontua	100,00
c. 600.000,00 euro bitarteko aurrekontua	160,00
d. 600.000,00 eurotik gorako aurrekontua	1.500,00
2. Alboko jabari publikoko eremua ukitzen duen baimena	50,00
3. Zortasun eremua ukitzen duen baimena	50,00
4. Eraikuntza lerroa ukitzen duen baimena	50,00
5. Bestelako baimenak	100,00
6. Joan-etorriren beharrik izan ez duen txostena	45,00
7. Joan-etorrien beharra izan duen txostena	150,00

Tasaren zerga-egitatea honakoa da: Nafarroako Foru Komunitateko errepide sareko errepideen inguruko zortasun eta eraginpeko eremuetan eta jabari publikoko eremuetan eraikitze eta lurzoru erabiltzeko egintzetarako eskaerak instruitu eta ebazteko tasa, Nafarroako Errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legean ezarritakoarekin bat, eta bide ustiapenaren determinazioei buruzko txosten fakultatiboak ematea, pertsona fisiko edo juridiko interesdunek eskatuta.

Babes eremu bati baino gehiagori eraginez gero, babes handieneko eremuan duen ukipenagatikoko tasa baizik ez da ordainduko.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira aurreko artikuluan aipatzen den baimena edo txostena eskatzen duten eta horien onuradun diren pertsona fisikoak edo juridikoak.

3. Sortzapena.

Tasa eskaera egiten denean sortuko da. Tasa-aren ordainketa egin dela frogatu arte ez da eskaera tramitatuko.

5. Tasa itzultzea.

Subjektu pasiboari ezin egotz dakioken arrazoiengatik obra edo erabilera baimendua egiterik ez badago, itzuli egingen da tasaren zenbatekoa.

6. Salbuespenak.

Tasatik salbuetsirik daude baimena behar duten nekazaritza landaketak eta apaindurarako laboreak.

46. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Errepideen Sarean distantziak neurtzeko zerbitzuak emateagatik tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da Nafarroako Foru Komunitateko Errepideen Sareko distantziak neurtzeko zerbitzuak ematea.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira 1. apartatuan aipatzen diren zerbitzuak ematea eskatzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da zerga-egitatea osatzen duen zerbitzua emateko eskaera aurkezten den unean.

4. Tarifa.

4. Tarifak.

		Euroak
1. TARIFA	Joko enpresen erregistroa: inskripzioa	44,55
2. TARIFA	Joko eta josteta-makinen modeloen erregistroak	
	1. Homologazioa eta inskripzioa	187,76
	2. Homologazioa eta inskripzioa aldatzea	93,35
3. TARIFA	Jokorako bestelako materialak: homologazioa	113,50
4. TARIFA	Bingo aretoak	
	1. Ustiatzeko baimena	2.277,54
	2. Ustiatzeko baimena berritzea	1.062,92
5. TARIFA	Agiri profesionalak: ematea	20,15
6. TARIFA	Joko aretoa	
	1. Ustiatzeko baimena	455,08
	2. Ustiatzeko baimena berritzea	211,10

62,40 euroko tasa eskatuko da Nafarroako Errepideen Sareko bi punturen arteko distantzietan buruzko ziurtagiria emateagatik.

Tasa eskatuko da tarifa honen arabera:

Nafarroako Errepideen Sareko bi punturen arteko distantzietan buruzko ziurtagiriagatik: 62,40 euro.

VI. KAPITULUA

Jokoaren eta ikuskizunen arloko tasak

47. artikulua. Jokoaren jarduerak eragindako tasak

1. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da jokoaren arloko agiriak emateari, instalatzeko edo ustiatzeko baimenei, lizentzietan, baimenei eta 4. apartatuan aipatzen diren gainerako prestazioei dagozkien zerbitzuak ematea.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira zerga-egitatea osatzen duten zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da zerga-egitatea osatzen duen zerbitzua emateko eskaera aurkezten den unean.

7. TARIFA	Joko makinak	
	1. Instalazio baimena	187,76
	2. Titular aldaketak eta truke fiskalak, makina bakoitzeko	36,07
	3. Ustiatzeko baimena	60,00
8. TARIFA	Zozketak, tonbolak eta ausazko konbinazioak: baimena	
9. TARIFA	Apustu dendak	
	1. Ustiatzeko baimena	437,58
	2. Ustiatzeko baimena berritza	202,98

48. artikulua. Ikuskizun publikoen eta josteta jardueren tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak baimentzeari dagozkion zerbitzuak ematea, agiriak egitea eta 4. apartatuan aipatzen diren gainerako prestazioak.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira zerga-egitatea osatzen duten zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da zerga-egitatea den zerbitzua emateko eskaera aurkezten den unean.

4. Tarifak.

Tasa eskatuko da tarifa hauen arabera:

		Euroak
1. TARIFA	Zezenketak, burtziketak, zezenketa mistoak eta pikatzaileekiko zekorketak baimentzea (ikuskizun bakoitzeko)	36,07
2. TARIFA	Pikatzaileerik gabeko zekorketak baimentzea (ikuskizun bakoitzeko)	21,22
3. TARIFA	Bestelako zezenketa -ikuskizunetarako baimenak (ikuskizun bakoitzeko)	13,79
4. TARIFA	Eremu publikoan jendaurreko ikuskizunak eta josteta jarduerak egiteko baimenak (ikuskizun edo jarduera bakoitzeko)	44,55
5. TARIFA	Ikuskizun publiko eta josteta jardueren arloko enpresen erregistroan inskribatzea	44,55
6. TARIFA	Zezenketa arloko profesionalen erregistroan inskribatzea	81,68

VII. KAPITULUA

Nekazaritzaren eta ingurumenaren arloko tasak

49. artikulua. Abeltzainak aldi baterako okupazteagatiko tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea hau da: azpiegitura edo instalazio desmuntagarriekin abeltzainak aldi baterako okupatzea. Horrelako okupazioak onartuko dira baldin eta abereen pasabidea edo langintza horrekin bateragarriak eta osagarriak diren gainerako erabilerak galarazten ez badira.

2. Subjektu pasiboak.

Subjektu pasiboak dira Nafarroako Gobernua-
ren jabetzakoa den edozein abeltzain aldi baterako okupatzea eskatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da kudeaketa organoak baimentzen duenean eskatutako okupazioa. Edozein kasutan, eskatutako okupazioa baimentzeko ebazpena eman aurretik egiten da ordainketa.

4. Tarifak.

Okupazio tasa kalkulatzeko, kontuan hartuko da lurzorua-
ren jabari osoaren balioa (aurrerantzean, JOB).

Balio hori lortzeko, azken bost urteetan inguruko lursailetan egin diren salmenten lekukoak hartzen dira. Tasa berrogei urteko aldirako kalkulatu da, eta beraz, okupazioaren urteko kanona honela zehaztuko da:

a) Azaleko ukipenak: lur gaineko pasabideak, zutoinak, kutxatilak, erregistroak, etab.

Urteko tasa = (okupatutako azalera x JOB) / 40 urte

b) Lur azpiko ukipenak: saneamenduak, hornidurak, gasa, etab.

Urteko tasa = (luzera x 3 x JOB x 0,9 + luzera x 7 x JOB x 0,25) / 40 urte

c) Aireko ukipenak: linea elektrikoak, telefonoak, etab.

Urteko tasa = (luzera x 7 x JOB x 0,4) / 40 urte

50. artikulua. Ingurumen arloko informazio espezifikoa emateagatiko tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da ingurumen arloko informazio espezifikoa ematea, interesdunak eskatutakoari egokitua.

2. Subjektu pasiboak.

Tasa honen subjektu pasiboak dira zerga-egitatea osatzen duten jarduketak egitea eskatzen dutenak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da ingurumen arloko informazioa eskatzen denean. Tasa ordaintzen ez den bitartean, ez da informazioa tramitatuko.

Eskaera egiten den unean tasa zenbatekoa den kalkulatzeko ezinezkoa bada, gutxi gorabeherako gordailu bat eskatuko da, geroko likidazioaren kontura, deusetan galarazi gabe gordailu hori itzultzea hurrengo apartatuan aipatzen diren kasuetan.

4. Salbuespenak eta hobariak.

a) Ondoko hauek ingurumen arloko informazioa emateko tasaren ordainketatik salbuetsita egonen dira, baina informazio eskaera bakoitzeko ale bakar bat jasotzen ahalko dute ordaindu gabe:

Lehenena. Administrazio publikoak, sektore publikoaren informazioa berriz erabiltzeari buruzko 2003/98/EE Zuzentarauan xedatutakoari jarraikiz.

Bigarrena. Gaia dela eta, informazio hori behar duten ikastetxe eta unibertsitateak, behar hori justifikatuz gero.

b) Ingurumen arloko informazioa emateko tasaren 100eko 50eko hobaria egiten ahalko da, ingurumen arloko informazioa unibertsitate edo erakunde ofizialek onartutako ikerketa lan edo proiektuak egiteko eskatzen denean.

5. Tarifak.

		Euroak
1. TARIFA	Zuri-beltzezko fotokopiak, 10 aletik gorako fotokopia bakoitzeko	
	1. DIN-A4 neurriko fotokopiak	0,06
	2. DIN-A3 neurriko fotokopiak	0,12
2. TARIFA	Koloretako fotokopiak	
	1. DIN A-4 neurrikoak	0,78
	2. DIN A-3 neurrikoak	1,56
3. TARIFA	Eskaerarako propio egin beharreko mapak	
	1. DIN-A4 neurrikoak	3,12
	2. DIN-A3 neurrikoak	6,24
	3. DIN-A2 neurrikoak	12,48
	4. DIN-A1 neurrikoak	24,96
	5. DIN-A0 neurrikoak	49,92
4. TARIFA	CD-ROMetan egindako grabazio berariazkoa	
	1. CD-ROMa	2,08

51. artikulua. Zerbitzu agronomikoen kudeaketa tekniko-fakultatiboaren tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea osatzen dute nekazari-tzako ekoizpena sustatu, defendatu eta hobetzeko lanek eta zerbitzuek, 4. apartatuan zehazten direnek.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira 4. apartatuan aipatzen diren zerbitzuak edo lanak erabiltzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da zerbitzua egiten den unean.

Zerbitzua edo jarduera interesdunak eskatuta egiten denean, ordea, eskaera egiten denean eskatuko da.

4. Tarifak.

Tasa eskatuko da tarifa hauen arabera.

		Euroak
	Produktu fitosanitarioen erabiltzaile profesionalen erregistroetan inskribatzea eta txartelak ematea:	
1. TARIFA	1. Honako erregistro hauetan inskribatzea: -Pestiziden establezimenduen eta zerbitzuen erregistro ofiziala -Babes fitosanitarioarako baliabideen ekoizle eta operadoreen erregistro ofiziala. Horniketen eta tratamenduen sektoreak. -Mintegiko hazien eta landareen ekoizle, merkaturatzaile eta inportatzaileen erregistroa -Laborantzako ongarrien eta substratuen fabrikatzaileen erregistro ofiziala	24,00
	2. Honako erregistro hauetan inskripzioa berritzea: -Pestiziden establezimenduen eta zerbitzuen erregistro ofiziala -Babes fitosanitarioarako baliabideen ekoizle eta operadoreen erregistro ofiziala. Horniketen eta tratamenduen sektoreak -Mintegiko hazien eta landareen ekoizle, merkaturatzaile eta inportatzaileen erregistroa	14,00
	3. Babes fitosanitarioarako baliabideen ekoizle eta operadoreen erregistro ofizialaren aholkularitza sektorean inskribatzea	12,00
	4. Produktu fitosanitarioen erabiltzaile profesionalen txartelak ematea eta Babes fitosanitarioarako baliabideen ekoizle eta operadoreen erregistro ofizialean inskribatzea (erabilera profesionaleko sektorea)	10,00
2. TARIFA	Nekazaritzako makineriaren erregistroetan inskribatzea eta zirkulazioko kartilla ematea traktore, motor eta bestelako nekazaritzako makineriarentzako, inportatuak nahiz fabrikazio nazionalekoak izan, berriak edo berreginak	Prezioaren 1.000ko 2, saltzailearen fakturaren arabera, 1.803,00 eurotik aurrera.

5. Salbuespena.

Tasak ordaintzetik salbuetsirik daude Foru Komunitateko Administrazioa, Nafarroako toki entitateak, Estatua, lurraldeko gainerako erakunde publikoak eta horien menpeko erakunde autonomoak.

52. artikulua. Nekazaritzako elikagai industriak eta nekazaritza ustiategiak antolatzeagatiko tasa.

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea hauek osatzen dute: Administrazioak, ofizioz edo administratuek eskaturik, nekazaritzako industriak eta abeltzaintzakoak antolatzeko ematen dituen zerbitzu, lan eta azterlanak, 4. apartatuan aipatzen direnak.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira 4. apartatuan aipatzen diren zerbitzuak, lanak edo azterlanak ematea eskatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak edo horrek ukitzen dituenak, ofizioz egindako jarduketan kasuan.

3. Sortzapena.

4. apartatuko 5. eta 7. tarifen kasuetan, tasa sortuko da Administrazioak jakinarazten dienean subjektu pasiboek ikuskapena egiteko erabakia, eta zerbitzua emateko unean eskatuko da.

Gainerako tarifetan, tasa sortu eta eskatuko da subjektu pasiboek beren intereseko eskaera aurkezten dutenean.

4. Tarifak.

Tasa eskatuko da tarifa hauen arabera:

		Euroak
1. TARIFA	Industria berriak instalatzea edo lehendik daudenak handitzea	
	Instalazioaren balioa	
	30.050,00 euro bitarte	89,44
	Hortik gorako 6.010,00 euroko, 450.760,00 euro bitarte	11,44
	6.010,00 euroko edo gelditzen den zatikiko	6,24
2. TARIFA	Industriak tokiz aldatzea	
	Instalazioaren balioa	
	30.050,00 euro bitarte	67,60
	Hortik gorako 6.010,00 euroko, 450.760,00 euro bitarte	8,32
	6.010,00 euroko edo gelditzen den zatikiko	3,12
3. TARIFA	Makina berriak jartzea	
	Instalazioaren balioa	
	30.005,00 euro bitarte	22,88
	Hortik gorako 6.010,00 euroko, 450.760,00 euro bitarte	2,60
	6.010,00 euroko edo gelditzen den zatikiko	1,56
4. TARIFA	Industriaren jabe-aldaketa	
	Instalazioaren balioa	
	30.050,00 euro bitarte	22,88
	Hortik gorako 6.010,00 euroko, 450.760,00 euro bitarte	2,81
	6.010,00 euroko edo gelditzen den zatikiko	1,56
5. TARIFA	Sasoikako industriak abian jartzearen akta	
	Instalazioaren balioa	
	30.050,00 euro bitarte	22,88
	Hortik gorako 6.010,00 euroko, 450.760,00 euro bitarte	2,81
	6.010,00 euroko edo gelditzen den zatikiko	1,56
6. TARIFA	Nekazaritzako eta abeltzaintzako industriekin eta Eraldaketarako Nekazaritza Sozietateekin loturiko ziurtagiriak ematea	12,48 euro ziurtagiri bakoitzeko
7. TARIFA	Industriak ikuskatzea, sasoikakoak izan ezik	
	Instalazioaren balioa	
	30.050,00 euro bitarte	33,80
	Hortik gorako 6.010,00 euroko, 450.760,00 euro bitarte	4,37
	6.010,00 euroko edo gelditzen den zatikiko	2,18
8. TARIFA	Enpresa-sailkapenaren agiria ematea edo berritzea	17,68
9. TARIFA	Eraldaketarako Nekazaritza Sozietateen Erregistroko inskripzioa	17,68
10. TARIFA	Lehenbiziko instalazioaren ziurtagiria ematea	5,20
11. TARIFA	Nekazaritzako ustiatzekin loturiko ziurtagiriak ematea	12,48

53. artikulua. Osasun agiriak eman eta produktu biologikoak aplikatzeagatiko tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da Administrazioak ematea 4. apartatuan zehaztutako zerbitzu fakultatiiboak.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira 4. apartatuan aipatzen diren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortu eta eskatuko da zerbitzua egitean. Nolanahi ere, tasak kobratzeko kudeaketa errazteko, kudeaketa horretaz arduratzen den zerbitzuak fakturaziorako sistema multzokatu bat ezar dezake, sei hilabeteko edo urte bateko epeak hartzen dituena.

4. Tarifak.

Tasa eskatuko da tarifa hauen arabera:

		Euroak
1. TARIFA	Jatorriaren eta osasunaren gidak edo agiri baliokideak ematea (web gidak ez). Nazioarteko garraioaren osasun arloko ziurtagirien kasuan (TRACES), aplikatu beharreko tasa bikoitza izanen da. Agiri bakoitzeko gutxieneko zenbatekoa 1,20 eurokoa izanen da eta gehienekoa 30,00 eurokoa	
	1. Zaldi-azienda, behi-azienda eta ratiteak	1,20 abelburuko
	2. Ardi-azienda, ahuntz-azienda eta bestelako hausnarkari txikiak	0,12 abelburuko
	3. Txerri-azienda	0,15 abelburuko
	4. Hegaztiak, untxiak eta erbiak	0,006 abelburuko
	5. Inkubatutako arrautzak eta egun bateko txitak	0,001 arrautza edo txita bakoitzeko
	6. Erlauntzak	0,60 erlauntza bakoitzeko
	7. Arrainak	0,012 kiloko
	8. Aurreko puntuetan jaso ez diren beste abere batzuk	Abere bakoitzarentzat kalkulaturako balioaren %0,25
2. TARIFA	Baldintza bereziak agiriak ematean	
	1. Edozein arrazoiengatik 1. tarifiaren adierazitako agiriak Foru Komunitateko Administrazioarentzat ezarritako egun eta orduetatik kanpora ematen direnean	1. tarifiaren ezarritakoak halakobi
	2. TRACES agiria eman aurreko ikuskapena, abeltzaintzakoak ez diren espezieen kasuan eta abeltzaintzaren beste produktu batzuetarako	25

3. TARIFA	Aziendaren profilaxirako nahitaezko kanpainetan, eta arau indardunek agindutako gainerako kasuetan, gai biologikoa erabiltzea, abelburuko izanen dira	
	1. Zaldi- eta behi-azienda	0,73
	2. Txerri-azienda	
	2.1. Txerrikumeak	0,21
	2.2. Gizentzekoak	0,42
	2.3. Ugalketarakoak	0,52
	3. Ardi- eta ahuntz-azienda	
	3.1. Buru batetik 20ra bitarte	0,42
	3.2. 20 burutik 100era bitarte	
	Lehenbiziko 20 buruak	7,28
	Gainerakoak	0,21
	3.3. 100etik gora	
	Lehenbiziko 100 buruak	23,92
	Gainerakoak	0,21
	Kasu guztietan, tarifa horiei gehituko zaizkie inprimakien eta Administrazioak erabiltako produktuen zenbatekoa	
4. TARIFA	Lege indardunek agindutako epizootien diagnosirako laginak hartzea eta produktuak aplikatzea, buruko eskatuko da	
	1. Zaldi- eta behi-azienda	5,00
	Egunean saneatutako 150. animaliatik aurrera	
		3,00
	2. Ardi- eta ahuntz-azienda	0,50
	Egunean saneatutako 500. animaliatik aurrera	
		0,30
	3. Txerri-azienda	2,00
	Egunean saneatutako 150. animaliatik aurrera	
		1,50
	4. Ostrukak	5,00
	Egunean saneatutako 150. animaliatik aurrera	
		3,00
5. Bestelako hegaztiak eta untziak	0,50	
Egunean saneatutako 500. animaliatik aurrera		
	0,30	
6. Animalien entzefalopatia espongiforme kutsagarrien behatze-programak ezarritakoa betetzeko egin beharreko desplazamendu, lagin-hartze eta horren analisiengatik. Animalia bakoitzeko tasa		25
7. Esne gordinaren laginak hartzea eta horien kalitatea analizatzea		75,00
5. TARIFA	Zaldi-txartela ematea, animaliaiko	
	1. Zaldi-txartela ematea, Nafarroan dauden animalientzat	25
	2. Zaldi-txartela ematea, Nafarroatik kanpo dauden animalientzat	50
6. TARIFA	Ustiategiari, eroldari edo egoera sanitarioari buruzko datuak dituzten bestelako ziurtagiri edo agiriak ematea	7,28

7. TARIFA	Batasunaren barrenean animalia bizien salerosketan aritzen diren agenteen erregistroa eta baimena behar duten animalia biziak garraiatzen dituzten ibilgailuen erregistroa	25,00
8. TARIFA	Albaitarien jarduketa zezen ikuskizunetan	
	1. Zezenketak eta pikatzaileekiko zekorketak, albaitari bakoitzeko	260,00
	2. Bestelako zezen ikuskizunak, albaitari bakoitzeko	260,00
9. TARIFA	3. Abeltzaintzako lehiaketak, albaitari bakoitzeko	260,00
	Abeltzaintzako ustiategiekin eta abereekin lotutako agiriak eta identifikazio unitateak ematea	
	1. Abeltzaintzako ustiategien erregistroan inskribatzeagatik	10,00
	2. <i>Kendu da</i>	
	3. Behi-aziendarentzako bereizgarri bakoitzeko (belarritakoak)	0,70
	4. Behi-aziendarentzako belarritakoaren kopia bakoitzeko	2,00
	5. Behi-azienda identifikatzeko agiriaren kopia ematea	7,00
	6. Ardi eta ahuntz aziendak identifikatzeagatik (ikusteko moduko belarritakoa gehi belarritako elektronikoa edo errumeneko pilula)	3,00
	7. Identifikatzen den ardi- edo ahuntz-aziendako abelburu bakoitzeko (errumeneko pilula gehi ikusteko moduko belarritakoa, edo belarritako elektronikoa gehi ikusteko moduko belarritakoa)	1,00
	8. Ardi edo ahuntzendako errumeneko pilula, belarritako elektronikoa edo ikusteko moduko belarritako bakoitzeko, kopiak	1,20
	9. Identifikatzen den zaldi-aziendako abelburu bakoitzeko (mikrotxipa edo belarritako elektronikoa)	1,00
10. Zaldi-pasaportearen kopia edo ordezkia	20	
11. Zaldi-aziendarako mikrotxip edo belarritako elektronikoen kopia bakoitza	2,00	
10. TARIFA	<i>2016ko urtarrilaren 1etik indargabetutako tarifa</i>	
11. TARIFA	Establezimenduen erregistro ofizialean inskribatzea	
	1. Establezimenduak eta bitartekariak, abereentzako elikagaiak	50,00
	2. Albaitaritzako botiken establezimenduak	50,00
	3. Azienda errepidez garraiatzen duten ibilgailuak garbitzeko eta desinfektatzeko zentroak	50,00
	4. Giza kontsumorako ez diren eta animaliangandik datozen azpiproduktuak eta establezimenduak	50,00
	5. Establezimenduen beste inskripzio ofizial batzuk	50,00
6. Aziendaren elikadurarekin loturiko ibilgailuak inskribatzea	25,00	

5. Salbuespenak.

Tasatik salbuetsita daude albaitaritzaren zerbitzuak eta Abeltzaintzako Laborategira igorritako laginen analisia, baldin eta Abereen Saneamendurako programa ofizialaren barnean edo Foru Komunitateko Administrazioak zehazturiko gaixotasun epizootiko edo zoonosikoak begiratzeko planen barnean badago jarduera, eta ustiategian eta kasuan kasuko zerbitzuak proposatutako egunetan egiten bada.

Ez dira salbuetsiko aurreko 4. apartatuko 8. tarifiari adierazitako zerbitzuak jasotzen dituzten Nafarroako toki entitateak.

54. artikulua. Nekazaritzako Elikagaien Laborategian analisi zerbitzuak egiteagatikoa tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da Nekazaritzako Elikagaien Laborategiak 4. apartatuan aipatzen diren zerbitzuak egitea.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira zerga-egitatea osatzen duten zerbitzuak, dela ofizioz dela aurretik eskatuta, jasotzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortu eta eskatuko da zerbitzua egiteko unean. Nolanahi ere, tasak kobratzeko kudeaketa errazteko, kudeaketa horretaz arduratzen den zerbitzuak fakturaziorako sistema bat ezar dezake, hilabete batzuk multzokaturik hartzen dituena.

4. Tarifak.

Tasa eskatuko da tarifa hauen arabera:

		Euroak
1. TARIFA	LANDARE-BIOLOGIAREN BULEGOA	
	1. Erneketa	6,00
	2. 1.000 pikorreko pisua	3,00
	3. Purutasuna	3,00
	4. Hazien kontaketa	3,00
	5. Hazien indarra	6,00
	6. Nematodoak	24,00
	7. Onddoak	15,00
	8. BAKTERIOAK	
	8.1. ELISA * (1-40 lagin)	24,00
	8.2. Proba biokimikoak	15,00
	8.3. Immunofluoreszentzia	9,00
	8.4. PCRa	18,00
	9. BIRUSAK	
	9.1. ELISA * (1-40 lagin)	24,00
	10. PCR	18,00
11. Intsektuen sailkapena	6,00	
12. Landareen sailkapena	6,00	
13. Aipatu ez diren beste zehaztapen batzuk	12,00	

		Euroak
2. TARIFA	ABEREEN LABORATEGIA	
	1. ANALISI SEROLOGIKOAK	
	1.1. Aglutinazio azkarra	0,90
	1.2. Plakako aglutinazioa	13,00
	1.3. Konplementuaren finkapena	4,50
	1.4. Immunodifusio erradiala	3,00
	1.5. Inhibizio hemoglutinazioa	3,00
	1.6. Elisa	3,00
	1.7. PCRa	10,00
	2. ANALISI MIKROBIOLOGIKOAK	
	2.1. Enterobakterioen determinazioa, clostridiuma	9,00
	2.2. Salmonellaren determinazioa	21,00
	2.3. Mikobakteriorik badagoen azterzea	25,00
	3. GENOTIPATUAREN ANALISIA	
	3.1. Ardien eta ahuntzen genotipatua	5,00
	3.2. Ardien eta ahuntzen aitatasun-proba	10,00
	3.2. Zaldi-aziendaren genotipatua	15,00
	3.3. Zaldi-aziendaren aitatasun-proba	15,00
3.4. Behi-aziendaren genotipatua	30,00	

3. TARIFA	ENOLOGIA LABORATEGIA ANALISI SINPLEAK	Euroak
1. Butanola	Gasen kromatografia	7,00
2. Propanola	Gasen kromatografia	7,00
3. Azetaldehidoa	Gasen kromatografia	7,00
4. Etilo azetatoa	Gasen kromatografia	7,00
5. Metilo azetatoa	Gasen kromatografia	7,00
6. Azidotasun finkoa	Kalkulua	2,00
7. Azidotasun osoa	Bolumetria-MANB	2,30
8. Azidotasun lurrunkorra	Bolumetria-MANB	2,30
	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	
9. Azido azetikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	2,30
10. Azido bentzoikoa	Likidoen kromatografia, bereizmen handikoa	9,70
11. Azido zitrikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	6,00
12. Azido glukonikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	6,00

13. Azido laktikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	6,00
14. Azido malikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	5,00
15. Azido salizilikoa	Likidoen kromatografia, bereizmen handikoa	9,70
16. Azido sorbikoa	Likidoen kromatografia, bereizmen handikoa	9,70
17. Azido tartarikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	6,00
18. Errautsen alkalinitasuna	Bolumetria	2,88
19. Anhidrido sulfuroso librea	Espektrofotometria ikusgai ultramorea. Balorazioa	2,28
20. Anhidrido sulfurosoa, guztira	Espektrofotometria ikusgai ultramorea. Balorazioa	2,28
21. Antozianoak	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	3,00
22. Azukre erreduzitzaileak	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	2,28
23. Azukreak, guztira	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	3,90
24. Bromuroak	Potentiometria	2,83
25. Kaltzioa	Atomo-xurgapeneko espektrofotometria sugarduna	11,00
26. Katekinak	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	3,00
27. Errautsak	Grabimetria	3,00
28. Kloruroak	Potentiometria	2,50
29. Kobrea	Atomo-xurgapeneko espektrofotometria sugarduna	11,00
30. Koloratzaile sintetikoak	Estrakzioa-Finkapena	6,30
31. Konduktibitatea	Konduktimetria	2,28
32. Cielab a koordinatua*	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	4,00
33. Cielab b koordinatua*	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	4,00
34. Cielab l koordinatua*	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	4,00
35. Cielab c koordinatua*	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	4,00
36. Cielab h koordinatua*	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	4,00
37. Cielab s koordinatua*	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	4,00
38. Dentsitate optikoa, 280 nm	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	2,00
39. Dentsitate optikoa 429 nm	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	2,00
40. Dentsitate optikoa 520 nm	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	2,00
41. Dentsitate optikoa 620 nm	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	2,00
42. Dentsitate erlatiboa 20 °C	Dentsimetria elektronikoa	1,50
43. Dietilenglikola	Gasen kromatografia	5,50
44. Proteina egonkortasuna	Nefelometria	5,00
45. Egonkortasun tartarikoa	Prezipitazioa	5,00
46. Etanola	Gasen kromatografia	5,50
47. Aterakin ez-gutxitzaila	MANB kalkulua	5,78

48. Aterakin gutxitua	MANB kalkulua	5,78
49. Aterakin lehorra, guztira	Kalkulua edo lurrunketa	3,50
50. Ferrozianuroa disoluzioan	Prezipitazioa	6,30
51. Ferrozianuroa esekiduran	Prezipitazioa	6,30
52. Fluoruroak	Elektrodo hautakorrak	2,83
53. Glizerina	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	6,00
54. Glukosa + fruktosa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	6,60
55. Alkohol gradua pisuan	Destilazioa	3,90
56. Eskuratutako alkohol gradu bolumetrikoa	Infragorri hurbileko espektrofotometria	2,00
	MANB–Dentsimetria elektronikoa	3,90
57. Alkohol gradua potentzian	MANB kalkulua	1,80
58. Alkohol gradua, guztira	MANB kalkulua	4,28
59. Beaume gradua	MANB kalkulua	1,80
60. Bix gradua (sakarosaren %)	MANB kalkulua	1,80
61. Burdina	Atomo-xurgapeneko espektrofotometria sugarduna	11,00
62. Kolmatazio indizea	Mintz bidez iragaztea	6,30
63. Folin-Ciocalteu indizea	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	3,00
64. Antozianoen ionizazio indizea	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	3,00
65. Oxidasetako polifenol indizea	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	3,00
66. Koloratzailearen intentsitatea	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	2,00
67. Isoamilikoak	Gasen kromatografia	7,00
68. Isobutanola	Gasen kromatografia	7,00
69. Nitrogeno amoniakala	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	6,00
70. Nitrogeno a-aminikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	6,00
71. Nitrogeno asimilerraza	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	12,00
72. Magnesioa	Atomo-xurgapeneko espektrofotometria sugarduna	11,00
73. Masa bolumikoa 20 °C-an	MANB–Dentsimetria elektronikoa	1,50
	Errefraktometria	1,80
74. Metanola	Gasen kromatografia	7,00
75. pH-a	Potentziometria	2,28
76. Beruna	Atomo-xurgapeneko espektrofotometria–grafito labea	24,00
77. Hezetasun portzentajea	Grabimetria	3,50

78. Potasioa	Atomo-xurgapeneko espektrofotometria sugarduna	11,00
79. Hibridoaren presentzia	Fluoreszentiaren espektrofotometria	5,25
80. Bakterio azetikoaren kontaketa	Kontaketa plakan	12,00
81. Bakterio laktikoaren kontaketa	Kontaketa plakan	12,00
82. Legamia kontaketa	Kontaketa plakan	12,00
83. Lizun kontaketa	Kontaketa plakan	12,00
84. Aterakinaren gainerakoa	Kalkulua	10,00
85. Sakarosa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	8,00
86. Sodioa	Atomo-xurgapeneko espektrofotometria sugarduna	11,00
87. Sulfatoak	Prezipitazioa	5,50
88. Tonalitatea	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	2,00
89. Uheretasuna	Nefelometria	5,50
90. Zinka	Atomo-xurgapeneko espektrofotometria sugarduna	11,00

4. TARIFA	ENOLOGIA LABORATEGIA. ANALITIKA MULTZOAK	Euroak
AZKEN HARTZIDURA		6,50
1. Azido malikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	
2. Glukosa + fruktosa		
3. Azido azetikoa		
EUROPAR BATASUNEN BARNE MERKATUA EDO ESPORTAZIOA		Lehorrak 16,00 Gozoak 18,00
1. Azidotasan lurrunkorra	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	
2. Anhidrido sulfurosoa, guztira		
3. Azukre erreduzitzaileak		
4. Azido zitrikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	
5. Alkohol gradu bolumetrikoa	Infragorri hurbilezko espektrofotometria (lehorrak) MANB–Dentsimetria elektronikoa (gozoak)	
6. Azidotasan osoa	Potenziometria	
7. Metanola	Gasen kromatografia	
8. Alkohol gradua, guztira	Kalkulua	
9. Aterakin lehorra, guztira		
10. Masa bolumikoa 20 °C-an	Dentsimetria elektronikoa	
11. Akats organoleptikoak eta garbitasuna	(ontziratutako gabeko ardoetarako soilik)	

EDARI DESTILATUEN EUROPAR BATASUNeko BARNE MERKATUA EDO ESPORTAZIOA		5,00
1. Alkohol gradu bolumetrikoa	Dentsimetria elektronikoa (2870/2000 EEE)	
2. Masa bolumikoa 20 °C-an		
3. Beaumé gradua	Kalkulua	
OSORIK		Lehorrak 8,00 Gozoak 9,00
1. Alkohol gradu bolumetrikoa	Infragorri hurbilezko espektrofotometria (lehorrak) MANB–Dentsimetria elektronikoa (gozoak)	
2. Azidotasun lurrunkorra	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	
3. Azukre erreduzitaileak		
4. Azidotasun osoa	Potentziometria	
5. pH-a		
6. Anhidrido sulfurosoa, guztira	Espektrofotometria ultramorea	
7. Anhidrido sulfuroso librea		
EBALUAZIO ERREFRAKTOMETRIKOA MUZTIOETAN		2,00
1. Azukreak, guztira (g/l)	Errefraktometria-MANB	
2. Masa bolumetrikoa 20 °C-an		
3. Errefrakzio indizea		
4. Gradu probablea		
5. Brix gradua (sakarosaren %)		
GOI MAILAKO ALKOHOLAK		8,00
1. Butanola	Gasen kromatografia	
2. Propanola		
3. Azetaldehidoa		
4. Etilo azetatoa		
5. Metilo azetatoa		
6. Metanola		
7. Isiamilikoak		
8. Isobutanola		
KOLOREAREN TALDEA		4,00
9. Dentsitate optikoa 420 nm	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	
10. Dentsitate optikoa 520 nm		
11. Dentsitate optikoa 620 nm		
12. Koloratzailearen intentsitatea		
CIELAB PARAMETROAK		4,00
1. a* osagai gorria	Espektrofotometria ikusgai ultramorea / MANB	
2. b* osagai horia		
3. L* argitasuna		
4. C* kromatizitatea		
5. H* tonalitatea		
6. S* asetasuna		

Analitika multzo bat eginda ere, banako entseguren bat egin behar baldin bada multzoan eskainitakoaz bestelako teknika baten bidez, tek-

nika horren banako kostua multzoaren zenbatekoari gehituko zaio.

5. TARIFA	NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN LABORATEGIA. KONTZEPTU ADMINISTRATIBOAK	Euroak
	1. Kopiak eta jatorrizkoak, saiakuntzaren lehenbiziko txostenetik aurrera	2,00
	2. Ziurtagiriak eta txostenak	6,00

5. Salbuespena.

Ofizialki deklaraturako izurri bat dagoenean, ez da tasarik eskatuko Landare Biologiaren laborategiaren zerbitzuen kudeaketa tekniko edo fakultati-boa egiteagatik.

55. artikulua. Lurzatiak lurzati berrantolamenduko prozesuetatik kanpo uztearen ziurtagiriak emateagatik tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek administrazio zerbitzua egitea lurzatiak lurzati berrantolamenduko prozesuetatik kanpo uztearen ziurtagiriak emateko.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira 1. apartatuan aipatzen den zerbitzua eskatzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da zerga-egitatea osatzen duen zerbitzua emateko eskaera aurkezten den unean.

4. Tarifak.

Tarifa 10,00 eurokoa izanen da ziurtagiri bakoitzeko.

56. artikulua. Jatorri-deituren, deitura espezifikoan edo adierazpen geografiko babestuen kontseilu arauemaileen zerbitzuen tasak

1. Zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitatea da jatorri-deituren, deitura espezifikoan edo adierazpen geografiko babestuen kontseilu arauemaileek zerbitzu hauek ematea:

Lehena. Kontseilu arauemaileen erregistroetako inskripzioak.

Bigarrena. Ziurtapenak eta beste jarduketa batzuk, esaterako: mahats-biltzea eta ardogintza

kontrolatzea; jatorri deituretan, deitura espezifikoan edo adierazpen geografiko babestuetan sartzen diren produktuen izakinen kopuru-erakundea eta ekintza osagarriak; eta "Nafarroa" Jatorri Deituraren sartutako upeltegietan ardoa egitea, aipatutako deituraren Mahastien Erregistroan inskribatutako lurzatiak mahatsekin egina, eta/edo erregistro horretan inskribatu gabeko mahatsekin egina, betiere Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean badaude eta Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuak baimendutako aldaerekin eginak badaude, baina "Nafarroa" Jatorri Deituraren sartu gabekoekin, haien azken destinoa edozein izanik ere.

Hirugarrena. Honakoak ematea: jatorri ziurtagiriak, zirkulazio orriak, fakturen bisak, zigiluen, etiketen, kontraetiketen, besokoen eta ontzien salmenta, zigilatze eta markatze lanak.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira zerga-egitatea osatzen duten zerbitzuak eskatzen edo haietatik onura ateratzen duten pertsonak eta entitateak.

Edozein kasutan, tributu-zorren erantzule izanen dira kontseilu arauemaileen erregistroetan inskribaturik dauden ustiatuek, industrien, landaketen, upategien, granjen, hiltegien, zatiketa aretoen edo biltegien titularrak.

3. Tributuaren sortzapena eta kudeaketa.

Tasa sortuko da zerga-egitatea osatzen duten zerbitzuak emateko eskaera egiten denean edo ematen hasten direnean. Halere, subjektu pasiboren autolikidazio bidez ordaintzea eskatzen ahal da, kasuko zerbitzua ematen hasi aurretik.

Inskripzioaren tasa urtean behin sortuko da. Hasierako likidazioa sortuko da inskripzioaren unean, eta urte osoko zenbatekoa ordaintzea eskatuko da, edozein dela ere inskripzioa egiten den data.

4. Tarifak.

Tasa eskatuko da tarifa hauen arabera:

1. tarifa. Inskribatutako landaketen gainekoa, haien nekazaritzako elikagaien ekoizpena erabiltzen denean kasuan kasuko jatorri deiturak, deitura espezifikoak edo adierazpen geografiko babes- tuak babestutako produktuak egiteko.

a) Honela kalkulatu da tasaren zerga-oinarria: interesdun bakoitzaren izenean inskribatutako hektarea kopurua bider azken bost kanpainetan eskualdeko hektarea baten ekoizpenaren batez besteko balioa.

Ardogintzako produktuen kasuan, oso-osorik Nafarroako Foru Komunitatean kokaturiko kalitate figurek babestuetan, tasaren zerga-oinarria honela aterako da: interesdun bakoitzaren izenean inskribatutako hektarea kopurua bider kalitate figuraren baldintza agirian hektarea bakoitzeko gehienez onartzen den ekoizpenaren balioa.

b) Aplikatu den gehieneko karga-tasa 100eko 1 da.

2. tarifa. Inskribatutako gaztandegietan entregatutako ardi-esnearen gainekoa, jatorri deiturak babestutako gaztak egiteko erabiltzen denean.

a) Honela kalkulatu da tasaren zerga-oinarria: entregatutako esne bolumena bider esneak aurreko kanpainan izandako batez besteko prezioa.

b) Aplikatu den gehieneko karga-tasa 100eko 1 da.

3. tarifa. Adierazpen geografiko babestuan dauden produktuak egiteko erabiltzen diren abereen gainekoa.

a) Honela kalkulatu da tasaren zerga-oinarria: interesdun bakoitzaren izenean dauden abereen kopurua, adierazpen geografikoak babestutakoena, bider kasuko aberearen ekoizpenak aurreko kanpainan izandako batez besteko balioa.

b) Aplikatu den gehieneko karga-tasa 100eko 1 da.

4. tarifa. Oro har babestutako produktuen gainekoa.

a) Honela kalkulatu da tasaren zerga-oinarria: babestutako produktuaren unitatearen batez besteko prezioa bider saldutako bolumena edo kantitatea.

Aplikatu den gehieneko karga-tasa 100eko 1,5 da.

5. tarifa. Jatorri ziurtagiriak, zirkulazio orriak, fakturen bisak eta antzeko agiriak emateko esku- bideengatik.

a) Tasaren zerga-oinarria agirian jasotzen den balioari dagokiona izanen da.

b) Ziurtagiri, zirkulazio orri, fakturen bisa bakoitzeko edo antzeko beste edozein agirirengatik eskatu beharreko zenbatekoa 3,12 eurokoa izanen da.

6. tarifa. Etiketak, kontraetiketak, zigiluak, plakak, besokoak eta ontziak saldu eta emateagatik, bai eta zigitatze eta markatze lanengatik ere.

a) Tasaren zerga-oinarria agirian jasotzen den balioari dagokiona izanen da.

b) Eskatu beharreko zenbatekoa izanen da kostu prezioa halako bi.

7. tarifa. "Nafarroa" Jatorri Deituran inskribatutako upategiek egindako ardoa, "Nafarroa" Jatorri Deituraren Mahastien Erregistroan inskribatutako lurzatietako mahatsekin egina, eta/edo inskribatu gabekoekin egina, betiere lurzatiak Foru Komunitateko lurraldean badaude, baldin eta Nafarroako Gobernuak baimendutako aldaerekin eginak badaude, baina "Nafarroa" Jatorri Deiturak baimendutakoetan sartu gabeak.

a) Honela kalkulatu da tasaren zerga-oinarria: babestu gabeko produktuaren unitatearen batez besteko prezioa bider egindako kantitatea edo bolumena.

b) Aplikatu den gehieneko karga-tasa 100eko 1,5 da.

c) Deituraren babespean merkaturatzen bada ardoa, 4. tarifaren arabera kalkulatu da tasa hori.

5. Atxikipena.

Artikulu honetan arautzen diren tasen sarrerek eragindako baliabideak erabiliko dira Nafarroako Foru Komunitatean dauden jatorri deituren edo deitura espezifikoaren kontseilu arauemaileak finantzatzeko, dagokien zatian, bai eta adierazpen geografiko babestuenak ere.

57. artikulua. Esportaziorako ziurtagiri fitosanitarioak emateagatik tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da esportaziorako ziurtagiri fitosanitarioak ematea.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira esportaziorako ziurtagiri fitosanitarioa eskatzen duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da zerga-egitatea osatzen duen zerbitzuaren eskaera aurkezten den unean.

4. Tarifa.

Tasa eskatuko da tarifa hauen arabera:

		Euroak
1. TARIFA	Ziurtagiriko	44,62
2. TARIFA	Bertatik bertarako bisita behar duen ziurtagiriko	307,53
3. TARIFA	Bertatik bertarako bisita eta analisisa behar dituen ziurtagiriko	369,93

58. artikulua. Europar Batasuneko etiketa ekologikoa emateagatikoko tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da Europar Batasuneko etiketa ekologikoa ematea.

2. Subjektu pasiboa.

Tasaren subjektu pasiboak dira Europar Batasunaren etiketa ekologikoa eskatzen dutenak.

3. Sortzapena.

Tasa sortu eta eskatuko da Europar Batasunaren etiketa ekologikoa erabiltzeko eskaera aurkezten denean.

4. Tarifak.

Tarifa, oro har, 400,00 eurokoa izanen da.

Halere, tarifa 200,00 eurokoa izanen da enpresa txiki eta ertainen kasuan eta mikroenpresen kasuan (Batzordearen 2003/361/EE Gomendioaren definizioaren arabera) eta garapenean dauden herrialdeetako operadoreen kasuan.

Tarifa honetan ez da sartzen eskaeraren xede diren produktu edo zerbitzuen gainean egin beharreko proben edo egiaztapenen kostuari dagokion inolako elementurik. Kostu horiek eskatzaileek ordainduko dizkiete probak egiteko behar den kreditazioa duten entitateei.

5. Hobariak.

Eskatzeko tasa % 30 murriztuko zaie Ingurumen arloko Kudeaketa eta Auditoretzako Sistema Komunitarioan erregistratutako eskatzaileei edo % 15, berriz, ISO 14001 arauaren araberrako ziur-

tagiria dutenei. Murriztapenak ezin dira metatu. Bi sistemak betetzen badira murriztapen handiena baizik ez da aplikatuko.

Murriztapena egiteko, eskatzaileak berariaz konpromisoa hartu beharko du etiketa ekologikoa duten bere produktuek kontratuaren balio epean Europar Batasunaren etiketa ekologikoaren irizpideak osotara betetzen dituztela bermatzeko, eta konpromiso hori modu egokian sartu beharko du ingurumenaren arloan daraman politikan eta ingurumen arloko helburu zehaztuetan.

59. artikulua. Edukieren lekualdaketak emateagatikoko tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da ziurtapen prozesuan dauden hazien edukiera beste autonomia erkidego edo herrialde batzuetara lekualdatzea babesten duen ziurtagiria ematea.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira haziak eta landareak mintegian ekoizten dituen entitate gisa erakuta dauden eta, haziak Foru Komunitatetik kanpo ziurtatzeko asmoz, edukiera lekualdatzeko dokumentua ematea eskatzen duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da zerga-egitatea osatzen duen zerbitzuaren eskaera aurkezten den unean.

4. Tarifa.

Tasa eskatuko da tarifa hauen arabera:

		Euroak/Tona
1. TARIFA	Zerealak eta bazka landareak	0,55
2. TARIFA	Lekadunak	1,95
3. TARIFA	Koltza	1,80
4. TARIFA	Artoa	0,58
5. TARIFA	Ekilorea	2,92

60. artikulua. Ingurumen baimen integratuaren araubideko tasak

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da ingurumen baimen integraturako araubideari eta simaurren hondakin-kudeaketarako araubideari dagozkien administrazio prozeduren tramitazioa, hurrenez hurren, instalazioen titularrek edo sustatzaileek eskatuta nahiz ingurumen arloko eskumena duen departamentuaren ekimenez ofizioz hasten direnak.

2. Subjektu pasiboa.

Tasaren subjektu pasiboak dira administrazio prozedurak hasteko eskaeraren xede diren instalazioen titularrak edo sustatzaileak, edo ofiziozko jarduketek ukitzen dituztenak.

3. Sortzapena.

Tasa sortu eta eskatuko da instalazio baten titularrak edo sustatzaileak dagokion administrazio

prozedura hasteko eskaera aurkezten duen unean, zeina ez baita tramitatuko kasuan kasuko ordainketa egin arte.

Ofizioz betetzen diren jarduketek kasuan, tasa sortuko da ingurumen arloko eskumena duen departamentuak komunikatzen dienean titularrei edo sustatzaileei erabaki duela delako jarduketa egitea, eta eskatuko da prozedura amaitzen duen ebazpena ematean, aldez aurreko gordailua eskatzeko aukera ukatu gabe.

4. Tarifak.

Tasa orokorra eskatuko da oinarrizko tarifa batzuen arabera, eta, prozedura zehatz batzuen kasuan, metatuko diren osagarri batzuk gehituko zaizkie (oinarrizko tarifaren ehunekotan adierazita), tramitazioaren konplexutasuna areagotzen duten ezaugarrien arabera. Hona hemen oinarrizko tarifak eta osagarriak:

OINARRIZKO TARIFAK			
Kodea	Prozeduraren izena	Euroak	ST
TB-AAI-01	Instalazio berrirako ingurumen baimen integratua ematea	2.319,55	bai
TB-AAI-02	Ingurumen baimen integratuaren aldaketa, instalazio baten funtsezko aldaketaren ondorioz	1.687,05	bai
TB-AAI-03	Ingurumen baimen integratuaren aldaketa, instalazio baten aldaketa nabarmenaren ondorioz	934,95	bai
TB-AAI-04	Ingurumen baimen integratuaren aldaketa, instalazio bat osorik edo zati batean ixteko	1.176,45	bai
TB-AAI-05	Ingurumen baimen integratuaren aldaketa, funtzionamenduko aldaketaren ondorioz	330,05	bai

TB-AAI-06	Ingurumen baimen integratuaren berrikuspena, teknika erabilgarri onenetara egokitzeko	1.445,55	ez
TB-AAI-07	Ingurumen baimen integratuaren eguneratzea edo berrikustea	1.115,50	bai
TB-AAI-08	Instalazioaren aldaketaren gaineko irizpena	140,88	ez
TB-AAI-09	Proiektu baten exekuzioa hasteko epea luzatzea	123,05	ez
TB-AAI-10	Ingurumen baimen integratuaren iraungipena	330,05	ez
TB-AAI-11	Ingurumen baimen integratua azkentzea	632,50	bai
TB-AAI-12	Proiektu bat abian jartzearen gaineko erantzukizunpeko adierazpena	185,15	ez
TB-AAI-13	Instalazioaren titular aldaketaren berri ematea	58,08	ez

KODEA	OSAGARRIAK	
ST-AAI-01	KPKI Legearen I. eranskineko 9.3 atalekoak ez diren kategorietan sartutako instalazioak	+ % 25
ST-AAI-02	Lurzoru urbanizaezineko baimena behar duten instalazioak	+ % 10
ST-AAI-03	Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta behar duten proiektuak, IIArekin	+ % 15
ST-AAI-04	Ingurumenaren-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua behar duten proiektuak	+ % 5
ST-AAI-05	Isurketarako baimena eta arroko erakundearen txostena behar dituzten instalazioak	+ % 10

Osagarriak aplikatuko zaizkie soilik ST zutabe-an aipatzen diren oinarritzko tarifei.

5.Hobariak.

a) Ingurumena kudeatzeko sistemagatik:

Tasak 100eko 15 murriztuko zaizkie subjektu pasiboei instalazioak inskribatuta badin badituzte Nafarroako Foru Komunitateko Ingurumen arloko Kudeaketa eta Auditoretzako Sistema Komunitarioari atxikitako zentroen Erregistroan, salbu eta inskripzioa bertan behera gelditu dela deklaratu bada.

Era berean, tasen 100eko 10eko murriztapena aplikatuko zaie subjektu pasiboei, baldin eta beren instalazioek ISO 14001 arauaren arabera ziurtapena badute.

Aurreko bi hobariak baztergarriak dira beren artean, eta batera gertatuz gero altuena aplikatuko da.

b) Instalazioaren titularra den enpresaren tamainagatik:

Instalazioen titularrak diren enpresen tamainaren arabera, tasak murriztuko dira, taula honetan zehaztutako ehunekoetan:

TASEN HOBARIA ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA		
Mikroenpresa	Enpresa txikia	Enpresa ertaina
% 40	% 25	% 15

Hobari horretatik kanpo daude Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuei buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 5.5 kategorian dauden instalazioak.

Aurreko hobarietako edozein aplikatzeko, subjektu pasiboak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, dagozkion hobariak aplikatzeko ezarritako baldintzak betetzeari buruzkoa.

6. Salbuespenak.

Tasak ordaintzetik salbuetsirik daude Foru Komunitateko Administrazioa, Nafarroako toki entitateak, Estatuak, lurraldeko gainerako erakunde publikoak eta horien menpeko erakunde autonomoak.

61. artikulua. Simaurren hondakin-kudeaketarako araubidearen tasak

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da simaurren hondakin-kudeaketarako araubideari dagozkien administrazio prozeduren tramitazioa, instalazioen titularrak edo sustatzaileek eskatuta nahiz ingurumen arloko eskumena duen departamentuaren ekimenez ofizioz hasten direnak.

2. Subjektu pasiboa.

Tasaren subjektu pasiboak dira administrazio prozedurak hasteko eskaeraren xede diren instalazioen titularrak edo sustatzaileak, edo ofiziozko jarduketek ukitzen dituztenak.

3. Sortzapena.

Tasa sortu eta eskatuko da instalazio baten titularrak edo sustatzaileak dagozkion administrazio prozedura hasteko eskaera aurkeztzen duen unean, zeina ez baita tramitatuko kasuan kasuko ordainketa egin arte.

Ofizioz betetzen diren jarduketan kasuan, tasa sortuko da ingurumen arloko eskumena duen departamentuak komunikatzen dienean titularrei edo sustatzaileei erabaki duela delako jarduketa egitea, eta eskatuko da prozedura amaitzen duen ebazpena ematean, alde zuzeneko gordailua eskatzeko aukera ukatu gabe.

4. Tarifak.

Tasa orokorra tarifa hauen arabera eskatuko da:

TARIFA OROKORRAK		
Kodea	Prozeduraren izena	Euroak
TG-PGE-01	Simaurren Produkzio eta Kudeaketarako Plan berri bat onartzea	305,04
TG-PGE-02	Simaurren Produkzio eta Kudeaketarako Plan indarduna gaurkotzea	160,14
TG-PGE-03	Simaurren kudeaketarako baimena ematea, Simaurren Produkzio eta Kudeaketarako Plan bat onartzea barne	557,75

Simaurren produkzio eta kudeaketa planean aurreikusirik ez badago lurralde planik ez eta ekointzitateko simaurren banaketa planik, kasu berezia baita, tarifa orokorretan 100eko 50eko murriztapena egingen da, tramitazioaren konplexutasuna txikiagoa delako.

5. Hobariak.

a) Ingurumena kudeatzeko sistemagatik:

Tasak 100eko 15 murriztuko zaizkie subjektu pasiboari instalazioak inskribatuta badin badituzte Nafarroako Foru Komunitateko Ingurumen arloko Kudeaketa eta Auditoretzako Sistema Komunitarioari atxikitako zentroen Erregistroan, salbu eta

inskripzioa bertan behera gelditu dela deklaratu bada.

Era berean, tasen 100eko 10eko murriztapena aplikatuko zaie subjektu pasiboari, baldin eta beren instalazioek ISO 14001 arauaren arabera ziurtapena badute.

Aurreko bi hobariak baztergarriak dira beren artean, eta batera gertatuz gero altuena aplikatuko da.

b) Instalazioaren titularra den enpresaren tamainagatik

Instalazioen titularrak diren enpresen tamainaren arabera, tasak murriztuko dira, taula honetan zehaztutako ehunekoetan:

TASEN HOBARIA ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA		
Mikroenpresa	Enpresa txikia	Enpresa ertaina
% 40	% 25	% 15

Aurreko hobarietako edozein aplikatzeko, subjektu pasiboak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, dagozkion hobariak aplikatzeko ezarritako baldintzak betetzeari buruzkoa.

6. Salbuespenak.

Tasak ordaintzetik salbuetsirik daude Foru Komunitateko Administrazioa, Nafarroako toki entitateak, Estatua, lurraldeko gainerako erakunde publikoak eta horien menpeko erakunde autonomoak.

Era berean, TB-PGE-01 eta TB-PGE-02 tase-tatik salbuetsirik dago Simaurren Produkzio eta Kudeaketarako Plan berri baten onarpena, ingurumen baimen integratua emateko, aldaketa nabarmena egiteko, berrikusteko edo gaurkotzeko espedienteen tramitazioaren barruan.

VIII. KAPITULUA Industriaren arloko tasa

62. artikulua. Industriaren eta meatzeen arloko zerbitzuen tasak

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da 4. apartatuan aipatzen diren zerbitzuak, industria segurtasunaren eta meatzeen arlokoak, egitea, ofizios edo alderdiak eskaturik.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira zerga-egitatea osatzen duten zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da zerbitzua egitean. Nolanahi ere, eskaera egitean edo espedienteen hastean eska daiteke ordainketa.

4. Tarifak.

Tasa eskatuko da tarifa hauen arabera:

a) Baimenak.

Lehena. Baimen administratiboa industria segurtasunaren eta meatzeen arloan: 100,00 euro.

Bigarrena. Baimen administratiboa industria segurtasunaren arloan eta onura publikoa zehazki deklaratzeko: 150,00 euro.

Hirugarrena. Baimena, meatzeetako eskubideen, instalazioen eta jardueren titulartasuna aldatzeko: 30,00 euro.

Laugarrena. Meatzeetako esplorazio, aztertze eta emakida baimenak: 1.500,00 euro.

b) Ziurtagiria.

Organo administratiboek ziurtagiriak eta egiaztagiriak ematea: 30,00 euro.

d) Beste batzuk.

Lehena. Azterketa eskubideak industria segurtasunaren arloan: 15,00 euro.

Bigarrena. Lanbide txartelak ematea eta berri-tzea: 15,00 euro.

Hirugarrena. Desjabetze espedientearen hasiera: 90,00 euro.

Laugarrena. Okupazio akta: 50,00 euro.

Bosgarrena. Ikuskapena, erabilerako eredu eta patenteak praktikan jartzeko: 90,00 euro.

Seigarrena. Ibilgailu historikoak katalogatzea: 30,00 euro.

IX. KAPITULUA Ekonomiaren eta ogasunaren arloko tasak

63. artikulua. Nafarroako Lur-ondasunen Erregistro Fiskaleko dokumentazioa edo informazioa eman edo datuak egiaztatzeagatik tasa

1. Zerga-egitatea.

Zerga-egitatea da tributu arloko eskumena duen departamentuko Lur-ondasunen Zerbitzuak luzatzea, alderdi batek eskatuta, bere artxiboetan edo Nafarroako Lur-ondasunen Erregistroan dauden datuak jasotzen dituzten ziurtagiriak edo bestelako dokumentuak, edo informazioa ematea, Nafarroako lurraldean dauden ondasunei buruzkoak badira, eta, halaber, halako daturik ez dagoela frogatzen duten ziurtagiriak ematea.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira kasuan kasuko informazioa eskatzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da subjektu pasiboak eskatutako agiria edo informazioa ematen den unean, baina

horrek ez du ukatzen aldez aurreko gordailua eskatzeko aukera.

4. Tarifak.

Ordaindu beharreko tasak ondoko taulan ageri dira, euskarrien arabera:

a) Paperean emandako informazioa:

	PRODUKTUAK	Euroak
A. Inprimaki normalizatuak eta informazio agiriak		
1	Lurzati zedula	1,20
2	Ondasunen zerrenda titularraren arabera (orri bakoitzeko)	1,20
3	Katastroko balorazioaren orria	1,20
4	Ezaugarrien datuen orria	1,20
5	Balorazio orria, azaroaren 26ko 334/2001 Foru Dekretuarekin bat	1,20
6	Higiezin-unitatearen titulartasunaren orria	1,20
7	Lur-ondasunen Erregistroko datuak (orri bakoitzeko)	1,00
8	Lur-ondasunen Erregistroko datuei buruzko informazioaren kopia edo fotokopia duten ziurtagiriak ematea	5,00 gehi 1,00 orri bakoitzeko
9	Lurzati zedula ziurtatua	6,20
B. Lur-ondasunen Erregistroko agirien fotokopiak		
1	Katastro probintziala	3,00 gehi 0,10 orri bakoitzeko
2	Ezartze edo mantentze espedienteetako agiriak	3,00 gehi 0,10 orri bakoitzeko
3	Hegaldi historikoa (orri bakoitzeko)	2,40
4	Balorazio ponentzia	3,00 gehi 0,10 orri bakoitzeko
C. Lur-ondasunen Erregistroko agiri digitalen kopiak		
1	Krokisa (orri bakoitzeko)	1,20
2	Eraikuntzen argazkia (orri bakoitzeko)	1,20
3	Lurzatiien leiho grafikoa, ortoargazki eta guzti edo ortoargazkirik gabe	1,20

b) Euskarri informatikoan emandako informazioa:

	PRODUKTUAK	FORMATUA	Euroak
A. Inprimaki normalizatuak			
1	Lurzati zedula	PDFa	1,10
2	Ondasunen zerrenda titularraren arabera (orri bakoitzeko)	PDFa	1,10
3	Higiezin-unitatearen titulartasunaren orria	PDFa	1,10
4	Higiezin-unitatearen datuen orria	PDFa	1,10
B. Beste agiri informatizatu batzuk			
1	Eraikuntzen argazkia	JPG	1,10
2	Lurzati leiho grafikoa, ortoargazki eta guzti edo ortoargazkirik gabe	JPG	1,10
C. Kartografia eta argazkiak			
1	Lurzati plano (1/500, 1/1.000, 1/5.000 edo 1/10.000 eskalan) edo laburpen plano, ortoargazki eta guzti, baldin badago	DWG/DGN eta ortoargazkia PDFn	12,00
2	Alorren plano eskaneatua, bereizmen txikikoa	JPG	3,00
3	Alorren plano eskaneatua, bereizmen handikoa	JPG	6,00
4	Hegaldi historikoaren kontaktua	JPG	3,00
5	Ortoargazkia ezartzea	JPG	3,00
D. Datuen erazketa masiboak			
1	Lur-ondasunen Erregistroko datuen fitxategi estandarra (poligono osoen arabera)	ASCII	40,00, eta 1,00 gehiago 1.000 erregistroko

5. Salbuespenak.

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta haren erakunde autonomoak salbuetsita egonen dira.

b) Tasa ordaintzetik salbuetsita egonen dira, orobat, subjektu hauek, alde zuzenetik berariaz eskatzen badute eta tasa ez ordaintzeko salbuespen kasuetan daudela frogatzen badute:

Lehen. Nafarroako toki entitateak eta haien erakunde autonomoak, beren lurraldeari edo jardute eremuari buruzko produktu guztiak direla eta, baldin eta informazioa euskarri informatikoan, zehazki, Nafarroako Foru Ogasunean dauden formatuetan ematen bada eta, betiere, lehenago informazio berbera jaso ez badute eta informazio hori bakar-bakarrik dagozkien eginkizun publikoetan erabiltzeko baldin bada.

Bigarren. Estatuko Administrazio Orokorra eta lurraldeko gainerako entitate publikoak, bai eta

haien menpeko erakunde autonomoak ere, beren interes zuzenen alde jarduten dutenean zeinek bere eskumenak baliatze aldera.

Hirugarrena. Jabetza-erregistratzaileak, Lurralde Aberastasunaren Erregistroan dauden higiezin-unitateen eta erregistroko finken arteko koordinazio lanak, Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta katastroei buruzko Foru Legean aipatzen diren horiek, egiten ari direnean.

c) Interesdunek Internetetik zuzenean deskargatzen duten informazioak ez du tasarik izanen.

64. artikulua. Inprimakiak, programak eta aplikazio informatikoak saltzeagatik tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da inprimaki, programa eta aplikazio informatikoak saltzea.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira inprimaki, programa eta aplikazio informatikoak jasotzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da inprimaki, programa eta aplikazio informatiko horiek ematen diren unean.

4. Tarifa.

Tributu arloko eskumena duen departamentuak, zerbitzuaren kostua kontuan hartuta, ezarriko du ematen den inprimaki, programa eta aplikazio informatiko bakoitzeko jaso beharreko zenbatekoa.

65. artikulua. Aseguruetako bitartekoen eta berraseguruetako artekarien Erregistroan inskribatu eta ziurtagiriak egiteagatik tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da ondoren aipatzen diren inskripzioak eta ziurtagiriak egitea:

a) Aseguru agente lanetan edo banka-aseguruen operadore lanetan aritzen direnak, eskusiboak izan ala beste batzuei lotuak, Aseguruen bitartekarien, berraseguruen artekarien eta horien goi-kargudunen administrazio erregistro berezian inskribatzea, dela aseguru artekari gisa, dela berraseguruen artekari gisa.

b) Aseguruen bitartekari gisa edo berraseguruen artekari gisa inskribatzen diren pertsona juridikoen aseguru edo berraseguruen bitartekotza lanen gaineko erantzukizuna duten administrazio eta zuzendaritza karguak inskribatzea.

c) Aurrekoekin zerikusia duten egintzak inskribatzea, aseguru eta berraseguru pribatuen gaineko arauen arabera inskribatu beharrekoak badira.

d) Zenbaki honetako a) letran aipatzen den Erregistroan sartuta dagoen informazioari buruzko ziurtagiriak egitea.

2. Subjektu pasiboak.

Tasa honen subjektu pasiboak honako hauek dira: Aseguruen bitartekarien, berraseguruen artekarien eta horien goi-kargudunen administrazio erregistro berezian inskribatzen diren pertsona fisiko edo juridikoak eta erregistro horretako ziurtagiri bat eskatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da zerga-egitatea osatzen duen zerbitzua emateko eskaera aurkezten den unean.

4. Tarifa.

a) Tasa eskatuko da tarifa hauen arabera:

Lehena. Aseguruetako agente eskusibo baten inskripzioagatik, pertsona fisiko bada, 10,40 euroko kuota finkoa.

Bigarrena. Aseguruetako agente lotu bat edo aseguru edo berraseguruen artekari bat inskribatzeagatik, pertsona fisiko bada, 62,40 euroko kuota finkoa.

Hirugarrena. Aseguru agentzien sozietate edo banka-aseguruen operadore eskusibo edo lotu bat edo aseguru edo berraseguruen artekarien sozietate bat inskribatzeagatik, 145,60 euroko kuota finkoa.

Laugarrena. Aseguruetako agentzien edo banka-aseguruen operadore eskusibo edo lotuen sozietateetan edo aseguru artekarien edo berraseguruen artekarien sozietateetan aseguru edo berraseguruen artekaritza lanaren erantzukizuna duten administrazio eta zuzendaritza kargudunak inskribatzeagatik, 10,40 euroko kuota finkoa goi-kargudun bakoitzeko.

Bosgarrena. Inskribatzeko modukoa den beste edozein egintzagatik edo datuak aldatzeagatik, 10,40 euroko kuota finkoa bakoitzagatik.

Seigarrena. Erregistroan dagoen informazioari buruzko ziurtagiriak egiteagatik, 10,40 euroko kuota finkoa.

b) Inskripzioa bertan behera uzteko inskripzioa egiten denean, ez da tasarik eskatuko.

66. artikulua. Tributu aitortzen edo haien edukiaren erreproduzio edo kopiaren tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da tributu arloko eskumena duen departamentuak, alderdiak eskaturik, tributu aitortzen edo haien edukiaren erreproduzio edo kopia paperean ematea.

2. Subjektu pasiboa.

Tasaren subjektu pasiboak dira kasuan kasuko kopia edo erreproduzioa eskatzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da subjektu pasiboak kopia edo erreproduzioa eskatzen duen unean.

4. Tarifak.

Tarifa 0,10 eurokoa izanen da inprimatutako orrialde bakoitzeko.

67. artikulua. Tributu arloko berariazko ziurtagiriak emateagatiko tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da tributu arloko eskumena duen departamentuak, alderdiak eskaturik, tributu arloko berariazko ziurtagiriak paperean ematea.

2. Subjektu pasiboa.

Tasaren subjektu pasiboak dira kasuan kasuko ziurtagiria eskatzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.

Tasaren subjektu pasiboak dira kasuan kasuko ziurtagiria zer pertsona fisiko edo juridikoren ize-nean egiten den, horiek

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da subjektu pasiboak ziurtagiria eskatzen duen unean.

4. Tarifak.

Tarifak honako hauek dira:

a) 2,00 euro, oro har, paperean ematen den ziurtagiri bakoitzeko.

b) Paperezko ziurtagiria ezin bada segituan eman, aldez aurreko prestaketa egin behar denean hark igorpen automatikoko ereduekin bat ez egiteagatik, tarifa 5,00 eurokoa izanen da.

X. KAPITULUA

Etxebizitzaren eta eraikuntzaren arloko tasa

68. artikulua. Proiektuen erredakzioaren eta tasazioaren eta obren balorazioen tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da entitate, enpresa edo partikularren obra, zerbitzu eta instalazio proiektuen erredakzio eta tasazio lan fakultatiboak ematea, bai eta 4.810,00 eurotik gorako kostua duten obren balorazioa ere.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira zerga-egitatea osatzen duten zerbitzuak eskatzen dituztenak.

3. Sortzapena.

a) Tasa sortuko da zerbitzua egiteko unean.

b) Proiektuen erredakzioa eskatzen denean, tasa eskatzen ahalko da interesdunak arlo horretako eskumena duen departamentuak egindako aurrekontua onartzen duenetik aurrera.

c) Gainerako kasuetan, departamentuak prestazio fakultatiboa onartzen duenetik aurrera.

4. Tarifa

Tasa kalkulatzeko, zerga-oinarriari (proiektuaren exekuzio materialaren aurrekontu osoaren zenbatekoak osatua eta, tasazioaren kasuan, tasazioaren balioak osatua) ehuneko 4ko tasa aplikatuko zaio.

69. artikulua. Obren zuzendaritzaren eta tasazioaren tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da obren zuzendaritza, tasazio eta peritazio lan fakultatiboa egitea.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira zerga-egitatea osatzen duten zerbitzuak eskatzen dituztenak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da ziurtagiri bakoitza ematen den unean, eta atxikipen bidez eskatuko da.

4. Tarifa.

Tasa kalkulatzeko, zerga-oinarriari (proiektuaren exekuzio materialaren aurrekontu osoaren zenbatekoak osatua) ehuneko 2,2ko tasa aplikatuko zaio.

70. artikulua. Txostenen, ziurtagirien eta gainerako jarduketa fakultatiboen tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da txostenak egitea, ziurtagiriak ematea, proiektuak konformatzea eta baloraziorik ez dakarten gainerako jarduketa fakultatiboak, entitateek, enpresek edo partikularrek arloaren eskumena duen departamentuari eskutako tramitazioetan egin behar direnak.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira zerga-egitatea osatzen duten zerbitzuak ukitzen dituen pertsona fisikoak nahiz juridikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da zerga-egitatea den zerbitzua emateko eskaera aurkezten den unean.

4. Tarifak.

a) 93,60 euro, oro har.

b) Bisita gehigarriak edo, berariaz eskatuta, bakarka egindakoak, 10,92 euro.

71. artikulua. Etxebizitzen planoen eta lurralde antolamenduko nahiz hirigintzako agirien kopiak emateagatiko tasa

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da etxebizitzaren planoen eta lurralde antolamenduko nahiz hirigintzako agirien kopiak egin eta emateko zerbitzua ematea.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira kopia eskatzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da zerga-egitatea osatzen duen zerbitzua emateko eskaera aurkezten den unean.

4. Tarifa.

Tasa eskatuko da tarifa honen arabera:

Etxebizitzaren planoen eta lurralde antolamenduko nahiz hirigintzako agirien kopiak. Paper opakuan	Euroak
METRO LINEALA	4,94
DIN A0	5,20
DIN A1	2,60
DIN A2	1,30
DIN A3	0,42

5. Salbuespena.

Tasa honetatik salbuetsirik daude prozedura judizialean eskatzen diren kopiak, baldin eta eska-tzailea doako justiziaz baliatzen den auzilaria bada.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Foru lege honek indarra hartzean, haren kontrakoak diren lege eta erregelamenduzko xedapen guztiak indargabeturik geldituko dira eta, zehazki, honako hauek:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administra-zioako eta haren erakunde autonomoetako tasa eta

prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legea.

Azken xedapenetako lehena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofiziale-an argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, eta data horretatik aurrerako sortzapena edo ordainketa beharra duten tasa eta prezio publikoe-tan aplikatuko da.

Azken xedapenetako bigarrena. Erregela-mendu bidezko garapena.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu eta betetzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren araudi-aldaketak egin ditzan, halatan 65 urte baino gehiagoko pertsona zaharrek modua izan dezaten alokairu babestuko eskaintzan parte hartzeko, baita jadanik etxebizitza baten jabe direnean ere, baldin eta etxebizitza hori Nasuvinsa sozietate publikoak kudeaturiko Alokairu Poltsaren programarako lagatzen bada.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko otsailaren 4an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren araudi-aldaketak egin ditzan, halatan 65 urte baino gehiagoko pertsona zaharrek modua izan dezaten alokairu babestuko eskaintzan parte hartzeko, baita jadanik etxebizitza baten jabe direnean ere, baldin eta etxebizitza hori Nasuvinsa sozietate publikoak kudeaturiko Alokairu Poltsaren programarako lagatzen bada".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua premiatzen du beharrezkoak diren araudi-aldaketak egin ditzan, halatan 65 urte baino gehiagoko pertsona zaharrek, batez ere bakarrik edo beren ezkontidearekin bizi direnek, modua izan dezaten alokairu babestuko eskaintzan parte

hartzeko, baita jadanik etxebizitza baten jabe direnean ere, baldin eta etxebizitza hori Nasuvinsa sozietate publikoak kudeaturiko Alokairu Poltsaren programarako lagatzen bada.

Nolanahi ere, aipatu araudiak etxebizitza babestuaren programarako sarbidea baldintzatuko duten ondare- eta errenta-irizpideak ezarriko ditu eta, halaber, jabetzako etxebizitzarik ez duten pertsonen bermatuko zaie alokairu poltsako etxebizitzetarako lehentasunezko sarbidea.

Gure komunitateko 65 urte baino gehiagoko pertsonen beharrei erantzute aldera, Lurralde Antolamenduko, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak, udalekin lankidetzan, diseinatuko du Elkarlaneko Etxebizitzak Ezartzeko Plan bat, bizi-independentzia eta adinekoen premia espezifikoei erantzunen dieten beste bizitoki-eredu batzuk bultzatzeko oinarritzko laguntza uztartuko dituena, hala nola elkarlaneko etxebizitzak, tutoretzapeko pisuak eta abar".

Iruñean, 2021eko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, premiatzen da prostituzio-sistema abolitu dadin.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko otsailaren 4an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki Erabakia. Horren bidez, premiatzen da prostituzio-sistema abolitu dadin”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du indartu ditzan, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legearen eta foru-plan berriaren esparruan, prostituzio-sistematik bizirik ateratzen direnei arreta integrala emateko diziplina anitzeko zerbitzuak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kanpainak egin ditzan emakumeen erosketaren, prostituzioaren kontsumoaren eta emakumeen irudi iraingarriaren aurkako kontzientzia soziala sortzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen

ditu, bai eta toki entitateak ere, indartu egin ditzaten gizakien sexu-esplotaziorako salerosketa-delituak detektatzeko eta kontrolatzeko baliabideak eta ekintzak; izan ere, adierazle nahiz azterlan guztiek erakusten dute pandemiak areagotu egin duela gizakien salerosketa, bereziki emakume eta neskatona, zeinak, konfinatuta egotean, indarkeria handiagoaren arriskupean egon baitira.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du onets dezan gizakien sexu-esplotaziorako salerosketaren eta prostituzioaren aurkako lege integral bat.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat egin dezan Nafarroan prostituzioaren fenomenoak duen dimentsioari buruz, betiere prostituzioaren eskaerari eta proxenetismoaren benetako dimentsioari buruzko datuak emanen dituena, eta ez soilik prostituzioan ari diren emakumeei buruzkoak”.

Iruñean, 2021eko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da indargabetu dezala apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa, zehazki gastu-arauari dagokiona.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko otsailaren 4an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da indargabetu dezala apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa, zehazki gastu-arauari dagokiona”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du indargabetu dezala apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa, zehazki gastu-arauari dagokiona”.

Iruñean, 2021eko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroa-Akitania Berria-Euskadi Euroeskualdearen bilera ezohiko eta urgente-rako deia eska dezan, mugak ixtearen gaia aztertzeko.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko otsailaren 4an egindako bilkuran, hoan-ko mozio hau ezetsi du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroa-Akitania Berria-Euskadi Euroeskualdearen bilera ezohiko eta urgenterako deia eska dezan, mugak ixtearen gaia aztertzeko. Mozioa Maiorga Ramí-

rez Erro jaunak aurkeztu zuen eta 2021eko urta-rrilaren 29ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldiz-kari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da LOMLOEn “eskari soziala” sar dezan hezkuntza-plangintza egiteko oinarrizko irizpide gisa.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko otsailaren 4an egindako bilkuran, hona-ko mozio hau ezetsi du: “Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da LOMLOEn “eskari soziala” sar dezan hezkuntza-plangintza egiteko oinarrizko irizpide gisa. Mozioa Pedro

José González Felipe jaunak aurkeztu zuen eta 2021eko otsailaren 2ko 12. Nafarroako Parlamen-tuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enplegu plan bat onets dezan maiatzaren 1a baino lehen ordezkari handiena duten sindikatuekin eta enpresaburuekin.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko otsailaren 4an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enplegu plan bat onets dezan maiatzaren 1a baino lehen ordezkari handiena duten sindikatuekin eta enpresaburuekin. Mozioa José Javier Eparza Abaurrea

jaunak aurkeztu zuen eta 2021eko otsailaren 2ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren amaierako euskararen eta gaztelaniaren ahozko eta idatzizko gaitasun-mailari buruzko diagnostiko-ebaluazio bat diseinatu eta inplementa dezan.

HEZKUNTZA BATZORDEAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2021eko otsailaren 9an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: "Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren amaierako euskararen eta gaztelaniaren ahozko eta idatzizko gaitasun-mailari buruzko diagnosti-

ko-ebaluazio bat diseinatu eta inplementa dezan. Mozioa Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu zuen eta 2021eko urtarrilaren 19ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

